

## HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA URRETXU

2020ko apirila

### III. liburua

#### **“2. HIRIGINTZA ARAUAK” dokumentua.**

"2.2. HIRIGINTZA ARAU PARTIKULARRAK" dokumentua.  
"2.3. KATALOGOA" dokumentua.





# URRETXUKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

2020KO APIRILA

## **“2. HIRIGINTZA-ARAUAK” dokumentua.**

“2.2. HIRIGINTZA ARAU PARTIKULARRAK”.



**TALDE IDAZLARIA:**

**ZUZENDARITZA:**

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa  
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa  
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua

**IDAZLARIAK:**

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa  
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa  
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua  
Carmen Segurola Lázaro, geografoa

**KOLABORATZAILEAK:**

Endara Ingenieros Asociados, S.L.  
- Igor Martín Molina, BUPetako ingeniaria  
- Garo Azkue San Emeterio, BUPetako ingeniaria  
Iñigo Peñalba Arribas, arkitektoa  
Madalen Gonzalez Bereziartua, arkitektoa  
Juan Ignacio Cortés Arzallus, delineazioa eta edizioa  
Maria Jose Fernandez Calonge, delineazioa eta edizioa

**GAINBEGIRATZE TEKNIKOA ETA UDAL-INFORMAZIOA**

Maria José Begiristain Zabalo, udal-idazkaria.  
Iñaki Mendizabal, udal-arkitektoa.  
Udal Zerbitzuak, oro har.



## **AURKIBIDE OROKORRA**

### **1. Dokumentua. MEMORIA**

- 1.1. Dokumentua. “HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA”.
- 1.2. Dokumentua. GEHIENEO ETA GUTXIENEO HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA ARAUTZEKO ESTANDARRAK BETETZEN DIRELA ETA PLAN OROKORRA INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEN DELA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA.
- 1.3. Dokumentua. INGURUMEN IRAUNKORTASUNEO TXOSTENA. INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOA. Barne hartzen ditu azterketa akustikoa, energia-jasangarritasunaren azterketa, nekazaritza-sektorearen eraginaren ebaluazioaren azterketa eta HAPOn ebaluazioa klima-aldaketaren ikuspegitik.
- 1.4. Dokumentua. GENERO INPAKTUAREN EBALUAZIOA.
- 1.5. Dokumentua. HIZKUNTZA INPAKTUAREN EBALUAZIOA.

### **2. Dokumentua. HIRIGINTZA-ARAUAK.**

- 2.1. Dokumentua. HIRIGINTZA ARAU OROKORRAK.
- 2.2. Dokumentua. HIRIGINTZA EREMUEN HIRIGINTZA ARAU PARTIKULARRAK.
- 2.3. Dokumentua. KATALOGOA.

### **3. Dokumentua. AZTERKETA EKONOMIKOA. JARDUKETA-PROGRAMA.**

- 3.1. Dokumentua. EKONOMIA- ETA FINANTZA-BIDERAGARRITASUNEO AZTERLANA.
- 3.2. Dokumentua. EKONOMIA-IRAUNKORTASUNEO MEMORIA.
- 3.3. Dokumentua. JARDUKETA-PROGRAMA.

### **4. Dokumentua. PLANOAK**

### **5. Dokumentua. EGIKARITZE-LABURPENA**





Urretxu

**“2. HIRIGINTZA-ARAUAK” dokumentua.**

**“2.2. HIRIGINTZA EREMUEN HIRIGINTZA ARAU PARTIKULARRAK”.**



Urretxu

AURKIBIDEA

Or.

## HIRIGINTZA-EREMUAK

* 01. HE Gune Historikoa .....	1
* 02. HE Labeaga .....	7
* 03. HE San Martin .....	17
* 04. HE Matxinporta.....	25
* 05. HE Gerra .....	31
* 06. HE Sagastitxipi .....	35
* 07. HE Kanposantua .....	41
* 08. HE Gurutze auzoa.....	45
* 09. HE Elizalde.....	49
* 10. HE Nekolalde .....	53
* 11. HE Gainzuri- Mundo Mejor.....	61
* 12. HE Institutua.....	69
* 13. HE Lilibaso- Gainzabal.....	73
* 14. HE Pagoeta .....	81
* 15. HE Ipar Ipeñarrieta.....	91
* 16. HE Geltokia .....	103
* 17. HE Hego Ipeñarrieta .....	107
* 18. HE Mugitegi.....	113
* 19. HE Aparizio .....	119
* 20. HE Kaminpe .....	123





HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK  
"01. HE - GUNE HISTORIKOA"

**I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA DESKRIBAPENA.**

Eremuaren kokapena eta mugapena Plan honetako planoetan jasotakoak dira.

Funtsean, bat dator bere garaian Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren xede izan zen eremuarekin.

Urolaren ibarrean dago eta bat dator bere garaian harresitua izan zen hiribildua sortu zuen inguruneko lehen hiri-kokagunearekin. Erdi Aroko jatorriko asentamendua da, kale eta karkaba perpendikular eta estuekin, tipologia gotikoko partzela estu eta hondo handikoek osatutako etxe-uharteak eratzen dituztenekin.

Gune historikoa Iparragirre plazaren inguruan dago garatuta, eta hainbat sorta gotiko ezabatu ondoren sortu zen, erdigunean kokatuta. Hari aurre ematen diote udalak, kultur etxeak eta Tourseko San Martin elizak.

18.582 m<sup>2</sup>-ko azalera du.

**II.- ANTOLAMENDU-HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK.**

- \* Hiribilduaren lehen asentamendutik kontserbatutako Erdi Aroko bilbeak eta tipologia kontserbatzea.
- \* 1996ko abenduaren 10ean behin betiko onartutako Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren oinarritzko zehaztapenak baliozkotzea, eta baita behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketak ere.
- \* Eremuko etxebizitzaren gutxienezko batez besteko tamaina birdefinitzea.

**III.- EGITURA-ANTOLAMENDUA.**

**1.- KALIFIKAZIO GLOBALA.**

**1.1.- "A.1/01 Gune Historikoa" zona.....Azal. 11.278 m<sup>2</sup>**

- \* Hirigintza-eraikigarritasuna:
  - Sestra gainean:
    - Zona orokorrean dagoen eraikigarritasuna finkatu da, bertan lehendik finkatuta dauden eraikinei eta bere eraikuntza-parametroei (lerrokadurak, solairu-kopurua, etab.) lotuta, eta honako hauekin osatuta:
      - . Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritzapen-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuen multzoan eta gutxi eraikitako partzeletan aurreikusitako eraikigarritasuna, 1996ko abenduaren 10ean behin betiko onartutako Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren eta behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketen zehaztapenen arabera.



- . Plan honek titulartasun pribatuko ekipamendu-partzelen multzoan baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikuluan xedatutakoaren arabera).  
Sendotze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. art. eta abar).
  - Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.
- \* Erabilera-baldintzak:  
"A.1 Gune Historikoko zonak" zona globaletarako Plan honetan izaera orokorrekin ezarritakoak.  
Horren ondorioz, eremuko etxebizitzaren gutxieneko batez besteko tamaina 50 m<sup>2</sup>(s) da.

**1.2.- "C/01 Komunitate Ekipamendua (SO)" zona.** Azal. 1.968 m<sup>2</sup>

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrekin xedatutakoak dira.

**1.3.- "D.1/01 Hiriko Espazio Librea (SO)" zona.** .....Azal. 5.336 m<sup>2</sup>

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrekin xedatutakoak dira.

**2.- HIRIGINTZA-SAILKAPENA.**

Eremuko lurak hiri-lur gisa sailkatu dira.

**3.- ANTOLAMENDU XEHATUA ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.**

1996ko abenduaren 10ean behin betiko onartutako Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren zehaztapenak baliozkotzen dira, eta baita behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketak ere.

**4.- PROGRAMAZIO- ETA EGIKARITZAPEN-ARAUBIDE OROKORRA.**

Ez da ezarri araubide hori eremuan arautzeko egiturazko aurreikuspenik.

**IV.- ANTOLAMENDU XEHATUA.**

**1.- KALIFIKAZIO XEHATUA.**

1.1.- Zonakatze xehatua.

Plan Orokor honetako III.1 planoan jasotakoa, 1996ko abenduaren 10ean behin betiko onartutako Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren eta behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketetan ezarritakoarekin bat datorrena.

1.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.

Egungo partzelazioa finkatu da, kontu horri buruz Plan honetan eta gaur egun indarrean dagoen Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren kontu horren inguruan ezarritako irizpideen arabera birdoitzearen kalterik gabe.



1.3.- Eraikigarritasuna.

## \* Sestra gainean

Partzela bakoitzeko eraikigarritasuna finkatu egin da, lehendik dagoen eraikinaren formari lotuta, horietako bakoitzean finkatuta eta honako hauekin osatuta:

- Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritzapen-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan eta gutxi eraikitako partzeletan aurreikusitakoak, 1996ko abenduaren 10ean behin betiko onartutako Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren eta behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketan zehaztapenen arabera.
- Plan Orokor honek ekipamendu-partzela bakoitzean baimendutakoak (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikulua).
- Finkatze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. art.).

## \* Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorretatik partzela bakoitzean ondoriotzatzen dena (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

1.4.- Eraikuntza-baldintzak.

## \* Eraikuntza-parametroak:

## - Lerrokadurak eta sestrak:

Lehendik dauden eta Plan honek balidatu dituen eraikinak egungo lerrokadura eta sestekin finkatu dira, honako baldintza hauetan osatuta:

- . Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritzapen-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan eta gutxi eraikitako partzeletan aurreikusitakoak, 1996ko abenduaren 10ean behin betiko onartutako Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren eta behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketan zehaztapenen arabera.
- . Lehengoa baino eraikigarritasun handiagoa baimentzen duten 'c. Komunitate-ekipamendua' tipologiako partzeletan: Hirigintza Arau Orokorretako 56. Artikuluan edo horietako bakoitzean sustatu beharreko Xehetasun Azterketan xedatutakoaren arabera zehaztutakoak.
- Solairu-kopurua eta gehieneko garaiera:
  - . Sestra gainean
    - \* Partzela bakoitzean lehendik dauden eraikinak finkatu egin dira egungo solairu-kopuruarekin et altuerarekin, eta baita emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritzapen-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan eta gutxi eraikitako partzeletan aurreikusitakoak, 1996ko abenduaren 10ean behin betiko onartutako Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren eta behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketan zehaztapenen arabera.
    - \* Lehengoa baino eraikigarritasun handiagoa baimentzen duten 'c. Komunitate-ekipamendua' tipologiako partzeletan, eraikuntza-parametro horiek Hirigintza Arau Orokorretako 56. Artikuluan edo horietako bakoitzean sustatu beharreko Xehetasun Azterketan zehaztutakoak izango dira.
  - . Sestra azpian: partzela bakoitzean Plan honetan aurreikusitako solairu-kopurua eraikitzea baimendu da (Hirigintza Arau Orokorretako).

Plan Orokor honetako III.3 planoan jasotakoak dira, 1996ko abenduaren 10ean behin betiko onartutako Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren eta behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketetan ezarritakoekin bat datozenak.



### 1.5.- Erabilera-baldintzak.

Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak.

Plan Orokor honetako III.1 planoan jasotakoak dira, 1996ko abenduaren 10ean behin betiko onartutako Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezian eta behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketetan ezarritakoekin bat datozenak.

### 1.6.- Jabari-baldintza partikularrak.

Plan Orokor honetako III.3 planoan jasotakoak dira, 1996ko abenduaren 10ean behin betiko onartutako Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezian eta behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketetan ezarritakoekin bat datozenak.

## 2.- **HIRI-LURRAREN KATEGORIZAZIOA.**

Eremuko lurrek hiri-lur finkatuaren kategoria dute, hiri-lur finkatugabeko kategorizazioari buruzko salbuespenekin, honako hauen eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik:

- \* Lehendik dagoena baino hirigintza-eraikigarritasun handiagoa baimentzen zaien titulartasun pribatuko 'c. Komunitate-ekipamendua' tipologiako partzelak.
- \* Hirigintza-jarduketan xede diren (erabilera-aldaketa...) eta eraikigarritasun haztatuaren gehikuntza eragiten duten partzela xehatuak eta 1996ko abenduaren 10ean behin betiko onartutako Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziko eta behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketetako zehaztapenen arabera eraikigarritasuna handitzea baimentzen deneko gutxi eraikitakoak.

## V.- **HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK.**

Baldintzatzaille horiek Plan honetan araututakoak (Hirigintza Arau Orokorretako 85. artikulutik 94.era bitartekoak eta dagozkien planoetan jasotakoak) eta eremu horretan eragina dutenak dira.

Honako hauek dira eremu honetan:

- \* CS.7 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.  
Zerrenda hori HAPOren IEEen jasota dago baina hor IHOBEk kontu horri buruz eguneratuta duen informaziora igortzen da.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.4 planoan dago grafikoki irudikatuta.
- \* CS.8 Eremu Akustikoak.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.2 planoan dago grafikoki irudikatuta.



## VI.- KATALOGAZIO-BALDINTZAK.

Plan honetako "2.3 Katalogoa" dokumentuan jasotakoak eta eremu horretan eragina duten baldintzak dira.

Eremuan katalogatutako elementuak asko dira.

Lehenik eta behin nabarmendu egin behar da gune historikoak duen zona arkeologikoaren izaera, 1998-2-12ko Aginduaren arabera Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean Monumentu Multzo kategoriarekin inskribatuta dagoena.

Bestalde, babes berezia dute honako elementu hauek:

- \* Bikario Etxea (Iparragirre 14).
- \* Faktorekoa Etxea (Iparragirre 16).
- \* Udaletxea (Iparragirre 20).
- \* Iparragirre Etxea 8.
- \* Iparragirre Etxea 10.
- \* Galdosenea Etxea (Iparragirre 22).
- \* Iparragirre Etxea 24.
- \* Iparragirre Etxea 26.
- \* Iparragirre Etxea 38.
- \* Tourseko San Martín eliza.

Halaber, inbentarioan sartuta daude ikuspegi arkeologikotik:

- \* Bikario Etxea (Iparragirre 14).
- \* Faktorekoa Etxea (Iparragirre 16).
- \* Udaletxea (Corral-Ipeñarrieta jauregia) (Iparragirre 20).
- \* Galdosenea Etxea (Iparragirre 22).
- \* Urretxuko harresia.
- \* Tourseko San Martín eliza.
- \* Espetxea.
- \* Udaletxe ohia.

Bat datoz presuntzio arkeologikoko zonekin:

- \* Bikariokoa Etxea (A zona)
- \* Faktorekoa Etxea (A zona)
- \* Corral-Ipeñarrieta jauregia/Udaletxea (A zona)
- \* Galdosenea Etxea (A zona)

Oinarrizko babesarekin sailkatu dira:

- \* Urretxuko iturria (Iparragirre plaza)
- \* Iparragirrearen ohorezko monumentua (Iparragirre plaza).

HAPO honetako Hirigintza Arau Orokorretan xedatutakoa beteko da (95. artikulutik 100.era).



## **VII.- EGIKARITZE-ARAU BIDE XEHATUA.**

A priori ez da aurreikusten jarduketa-eremu espezifikorik, egin daitezkeen urbanizazio-obra egikaritzearen eta 1996ko abenduaren 10ean behin betiko onartutako Urretxuko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren eta behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketen garapenean bidezkoak diren jarduketa isolatu edo zuzkidurako jarduketan kalterik gabe.

- \* Jarduketa-baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak (101. artikulua eta ondorengoak).
- \* Urbanizazio-baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak (101. artikulua eta ondorengoak).
- \* Urbanizazio-kargak egikaritzeko eta finantzatzeko baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (101. artikulutik 104.era), eta "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" eta "3.3 Jarduketa Programa" dokumentuetan ezarritakoak.
- \* Erabileren haztapen-koefizienteak.  
Plan Orokorrak honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (105. Artikulua) ezarritakoak, "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" dokumentuan deskribatuta bezala lortutakoak.

## **VIII.-INGURUMEN-ARLOKO NEURRIAK.**

Baldintzatzaile gainjarriei lotutako neurrien osagarri gisa (helburu akustikoak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, etab.), arloan indarrean dauden xedapenetan eta proiektuetan eta Plan honetan bertan ("1.3. Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena. Ingurumen Azterketa Estrategikoa" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuak) ezarritako ingurumen-izaerako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira.

## **IX.- GRAFIKOAK.**

Ez dira sartu.



## HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK "02. HE LABEAGA".

### **I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA DESKRIBAPENA.**

Eremuaren kokapena eta mugapena Plan honetako planoetan jasotakoak dira.

Urretxuko hiri-kokagunearen luzapena da Urola ibarrean, hiribilduaren hegoaldean.

Batik bat bizitegi-ingurunearekin dator bat. Garai batean askotariko industria-ezarpenak hartu zituen baina hainbat eraldaketa-prozesuren ondoren egungo egoera geratu da.

Hiriaren bilakaerak bizitegi-kokagunearen jarraipena ahalbidetu du Labeaga kalearen inguruan, Urola ibairaino luzatuz.

Askotariko ekipamenduak hartzen ditu eta baita hiriguneko merkataritza-jardueraren zati handi bat ere.

Hala, hirigintza-garapen garrantzitsua eta finkatua du, batik bat bizitegitarakoa, beste erabilera batzuekin (hirugarren sektorekoak, ekipamenduak, espazio libreak, etab.) osatutakoa eta, aldi berean, hiriko gainerako alderdiekin eta udalerrri mugakideekin ondo komunikatutakoa (garraio publikoa, oinezkoentzako eta bizikletadunentzako sareak...).

86.884 m<sup>2</sup>-ko azalera du eta hiriguneko hirugarren handiena da hedadurari dagokionez.

### **II.- ANTOLAMENDU-HELBURUAK ETA -IRIZPIDEAK.**

- \* Oro har, lehendik dauden eraikinak eta horien erabilerak finkatzea, jarduketak berrienen ondoriozkoak barne (Ormazabal, Madaya, Domingo Mendiaraz, Gernikako arbola...).
- \* 2012ko Arau Subsidiarioetan aurreikusitako Lizeoa partzela bizitegi-lurzoru bihurtzeko asmoa baztertzea, gai horren inguruan hartutako udal-erabakiaren arabera.
- \* Oro har, urbanizazioa finkatzea, Plan Orokor honetan eta bere garapenean mugikortasun- eta irisgarritasun-arloan planteatzen diren erabakietan ezarritakoaren arabera formulatzen diren oinezkoentzako espazio publikoa berreskuratzeko proposamenen kalterik gabe.
- \* Eremuaren antolamenduaren bilakaerari jarraipena emateko xedez, "2.1 Urzelai" eta "2.2 Rodriguez" azpierenmuak mugatzea proposatzen da, honako antolamendu-helburu eta -irizpide hauek planteatuz:
  - "2.1 Urzelai" azpierenmuak, 1.448 m<sup>2</sup>-ko azalera du, eta Arau Partikular hauetako "1. Identifikazioa, mugapena eta antolamendua. Definizio geometrikoa" grafikoan mugatuta dago. Honako hauek planteatzen dira grafikoan:



- . Azpieroemua bi aldeetan egindako garapena osatzea. Horretarako, lekuaren hiri-berroneratzeari ekin behar zaio honako hauen bitartez: lehendik dauden eraikinak eraitsi eta horietan garatutako erabilerak lekualdatu eta/edo birkokatu; bizitegi-eraikin berria eraiki bi aldeetan lehendik dauden bi mehelinei atxikita eta udalerrak arlo horretan dituen premiei erantzungo dien aparkaleku-azalera handia gaitu, hirugarren sektoreko edo ekipamendutarako balizko erabilerekin osatuta.
- Hiri-eraldaketako ekimen hori udaleko Arau Subsidiarioetan planteatu zen, baina dokumentu honetan birdoitu egin da.
- . Eraikin berriaren lerrokadura atzeratu eta Labeaga kaleko espaloari jarraipena eman bere egungo zeharkako sekzioa handituz eta erabilera publikoko ataripeari jarraipena emanaz.
  - . Horretarako, azpieroemua bat dator zuzkidura-jarduketa batekin eta hori egikaritzetik gutxi gorabehera, 18 etxebizitza aterako dira, gaur egun 3 etxebizitza dituen bizitegi-eraikina eraitsi ondoren. 100 aparkaleku inguruko garajea gaitzeko aukera ere badago.
- "2.2 Rogriguez" azpieroemua, 1.721 m<sup>2</sup>-ko azalera du, eta Arau Partikular hauetako "1. Identifikazioa, mugapena eta antolamendua. Definizio geometrikoa" grafikoan mugatuta dago. Honako hauek planteatzen dira grafikoan:
- . Mugatutako azpieroemua hiri-berroneratzeari ekitea. Horretarako, eraikuntza-eta urbanizazio-baldintza berriak proposatzen dira. Horrek esan nahi du lehendik dauden eraikinak eraitsi behar direla eta haietan garatzen diren erabilerak lekualdatu eta/edo birkokatu. Bestalde, bizitegi-eraikin berria eraikitzea eskatzen du, beheko solairuko lokalekin eta garajetara bideratutako sotoekin.
- Hiri-eraldaketako ekimen hori udaleko Arau Subsidiarioetan planteatu zen, baina dokumentu honetan birdoitu egin da.
- . Proiektatutako eraikin berriaren ingurunea urbanizatzea, haren inguruko sestrak birdefinituz, horiek Labeaga kalean finkatzearen kalterik gabe, eta Urola ibaiaren ezker aldean pasealeku publiko bat antolatzea arkitektura-oztopoak (lehendik dauden eskailerak) kenduz eta pasealekuari iparralderantz eta hegoalderantz jarraipena emanaz.
  - . Horretarako, azpieroemua bat dator jarduketa integratu batekin eta hori egikaritzetik gutxi gorabehera, 34 etxebizitza aterako dira, gaur egun 9 etxebizitza dituen bizitegi-eraikina eraitsi ondoren. Eraikinaren beheko solairuan, bestalde, lokalak gaituko dira eta sotoan garajeak. Aurreikusitako 34 etxebizitzetatik 12 babes publikoko etxebizitzak izango dira.
- \* Eremuaren gainerako zatiak, lehen aipaturiko eta berriaz mugatutako bi azpieroemua sartu gabe, 83.715 m<sup>2</sup>-ko azalera du eta, oro har, egungo egoera finkatuko da.



**III.- EGITURA-ANTOLAMENDUA.****1.- KALIFIKAZIO GLOBALA.****1.1.- "A.2/02 Eraikuntza irekiko zonak" zona. ....Azal. 67.517 m<sup>2</sup>**

\* Hirigintza-eraikigarritasuna:

- Sestra ganean:

- "2.1 Urzelai" azpierenmuan ..... 3.300 m<sup>2</sup>(s)- "2.2 Rodriguez" azpierenmuan ..... 3.827,50 m<sup>2</sup>(s)

- Eremuaren gainerako zatian:

Eremuan baimendutako eraikigarritasuna lehendik dauden eta Plan honek finkatu dituen eraikinei eta horien eraikuntza-parametroei (lerrokadurak, solairu-kopurua, etab.) lotutakoa da, honako hauekin osatuta:

. Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuen multzoan aurreikusitako eraikigarritasuna.

. Plan honek titulartasun pribatuko ekipamendu-partzelen multzoan baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikuluan xedatutakoaren arabera).

Finkatze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

- Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.

\* Erabilera-baldintzak:

"A.2" zona orokorrerako Plan honetan izaera orokorrarekin ezarritakoak.

**1.2.- "C/02 Komunitate Ekipamendua (SO)" zona. ....Azal. 1.713 m<sup>2</sup>**

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrarekin xedatutakoak dira.

**1.3.- "D.1/02 Hiriko Espazio Librea (SO)" zona. ....Azal. 9.856 m<sup>2</sup>**

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrarekin xedatutakoak dira.

**1.4.- "E.1/02 Bide-sarea (SO)" zona. ....Azal. 6.476 m<sup>2</sup>**

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrarekin xedatutakoak dira.

**1.5.- "E.3/02 Bizikleta-bidea (SO)" zona. ....Azal. 1.322 m<sup>2</sup>**

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrarekin xedatutakoak dira.



## 2.- HIRIGINTZA-SAILKAPENA.

Eremuko lurra hiri-lur gisa sailkatu dira.

## 3.- ANTOLAMENDU XEHATUA ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.

Eremuaren antolamendu xehatua, mugatutako "2.1 Urzelai" eta "2.2 Rodriguez" azpieroemua barne, Plan Orokor honetan zehaztu da

## 4.- PROGRAMAZIO- ETA EGIKARITZAPEN-ARAUBIDE OROKORRA.

- \* "2.1.Urzelai" azpieroemua:
  - Programazioa: Plan Orokor honen epemugan sustatuko da. Horretarako, Plan Orokorra indarrean sartu eta sei urte igaro baino lehen egin behar da eraikuntza-lizentziaren eskaera.
- \* "2.2. Rodriguez" azpieroemua:
  - Programazioa: Plan Orokor honen epemugan sustatuko da. Horretarako, Plan Orokorra indarrean sartu eta sei urte igaro baino lehen izapidetu behar da Hirigintzako Jarduketa Programa eta eraikuntza-lizentziaren eskaera egin.
- \* Labeaga, Nekolalde eta beste kale batzuk berrurbanizatzeko obrak kontu horren inguruan udalak ezartzen dituen erabaki eta jarraibideen arabera egingo dira.

## IV.- ANTOLAMENDU XEHATUA.

### 1.- KALIFIKAZIO XEHATUA.

#### 1.1.- "2.1. Urzelai" azpieroemua.

##### 1.1.1.- Zonakatze xehatua.

Azpieroemuren zonakatze xehatua Hirigintza Arau Partikular honetako 2. grafikoan jasotakoa da.

##### 1.1.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.

Plan Orokorrak partzelazio-baldintza berriak proposatzen ditu Hirigintza Arau Partikular honetako 2. Grafikoan grafikoki irudikatzen direnak.

##### 1.1.3.- Eraikigarritasuna.

- \* Hirigintza-eraikigarritasuna:
  - Sestra gainean: 3.300 m<sup>2</sup>(s).
  - Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.
- \* Erabilera-baldintzak:
  - Baldintza orokorrak:  
"A.2 Eraikuntza Irekiko zonak" zona globalerako Plan honetan izaera orokorrarekin ezarritakoak.



- Bizitegi-eraikigarritasunaren araubide juridikoa:
  - . Antolatutako bizitegi-eraikigarritasuna: 2.000 m<sup>2</sup>(s).
- Beste erabilera baimendu batzuetara (garajea edo hirugarren sektorekoak...) bideratutako sestra gaineko eraikigarritasuna, ezkaratzak eta elementu komunak barne: 1.300 m<sup>2</sup>(s).

#### 1.1.4. Eraikuntza-baldintzak

Arau partikular honetan jasotako grafikoetan azpieremuari buruzko grafikoetan zehaztutakoak dira.

#### 1.1.5. Erabilera-baldintzak

Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak, Arau Partikular honetako azpieremuari buruzko grafikoetan zehaztutakoen arabera.

#### 1.1.6.- Jabari-baldintza partikularrak.

- \* Plan Orokor honetako "III.3" planoan eta Arau Partikular honetako grafikoetan jasotakoak dira.

### 1.2.- "2.2. Rodriguez" azpieremua.

#### 1.2.1.- Zonakatze xehatua.

Azpieremuaren zonakatze xehatua Hirigintza Arau Partikular honetako 2. grafikoan jasotakoa da.

#### 1.2.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.

Plan Orokorrak partzelazio-baldintza berriak proposatzen ditu Hirigintza Arau Partikular honetako 2. grafikoan grafikoki irudikatzen direnak.

#### 1.2.3.- Eraikigarritasuna.

- \* Hirigintza-eraikigarritasuna:
    - Sestra gainean: 3.827,50 m<sup>2</sup>(s).
    - Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.
  - \* Erabilera-baldintzak:
    - Baldintza orokorrak:
      - "A.2 Eraikuntza Irekiko Zonak" zona globalerako Plan honetan izaera orokorrarekin ezarritakoak.
    - Bizitegi-eraikigarritasunaren araubide juridikoa:
      - . Lehendik dagoen bizitegi-eraikigarritasuna: 660 m<sup>2</sup>(s).
      - . Bizitegi-eraikigarritasun berria (gehikuntza):
        - \* Babes publiko, sozial eta tasatuko etxebizitzaren araubideari lotuta (gutxieneko eraikigarritasuna, % 40): 1.036 m<sup>2</sup>(s).
        - \* Sustapen librekoa (gehieneko eraikigarritasuna, % 60): 1.554 m<sup>2</sup>(s).
        - \* Gehikuntza osoa (% 100): 2.590 m<sup>2</sup>(s).
- Bizitegi-eraikigarritasun berriaren % 20, gutxienez, babes sozialeko etxebizitzetara bideratuko da (518 m<sup>2</sup>(s)).



- . Ondoriozko bizitegi-eraikigarritasun totala: 3.250 m<sup>2</sup>(s).
- Baimendutako beste erabilera batzuetara (hirugarren sektorekoak...) bideratutako sestra gainerako eraikigarritasuna: 577,50 m<sup>2</sup>(s).

#### 1.2.4. Eraikuntza-baldintzak.

Arau partikular honetan jasotako grafikoetan azpierreuari buruzko grafikoetan zehaztutakoak dira.

#### 1.2.5. Erabilera-baldintzak

Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak, Arau Partikular honetako azpierreuari buruzko grafikoetan zehaztutakoen arabera.

#### 1.2.6.- Jabari-baldintza partikularrak.

- \* Plan Orokor honetako "III.3" planoan eta Arau Partikular honetako grafikoetan jasotakoak dira.

### 1.3.- **Eremuaren gainerakoa.**

#### 1.3.1.- Zonakatze xehatua.

Plan Orokor honetako III.1 planoan jasotakoa.

#### 1.3.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.

Egungo partzelazioa finkatu da, kontu horri buruz Plan honetan ezarritako irizpideen arabera birdoitzearen kalterik gabe.

#### 1.3.3.- Eraikigarritasuna.

- \* Sestra gainean  
Partzela bakoitzeko eraikigarritasuna finkatu egin da, lehendik dagoen eraikinaren formari lotuta, horietako bakoitzean finkatuta eta honako hauekin osatuta:
  - Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoa.
  - Plan Orokor honek ekipamendu-partzela bakoitzean baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikulua).
 Sendotze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).
- \* Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorretatik partzela bakoitzean ondorioztatzen dena (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

#### 1.3.4.- Eraikuntza-baldintzak.

- \* Eraikuntza-parametroak:
  - Lerrokadurak eta sestrak:  
Lehendik dauden eta Plan honek balidatu dituen eraikinak egungo lerrokadura eta sestrekin finkatu dira, honako baldintza hauetan osatuta:
    - . Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak.



- Solairu-kopurua eta gehieneko garaiera:
  - . Sestra gainean
    - \* Partzela bakoitzean dauden eraikinak egungo solairuekin eta garaierarekin finkatu dira eta baita emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak ere.
  - . Sestra azpian: partzela bakoitzean Plan honetan aurreikusitako solairu-kopurua eraikitzea baimendu da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

#### 1.3.5.- Erabilera-baldintzak.

- \* Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak. Gerta daitezkeen erabilera-aldaketak Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko 40.4 artikuluan ezarritako erregulazioetan xedatutakora egokitu beharko dira.

#### 1.3.6.- Jabari-baldintza partikularrak.

- \* Plan Orokor honetako "III.3" planoan eta Arau Partikular honetako grafikoetan jasotakoak dira.

## 2.- **HIRI-LURRAREN KATEGORIZAZIOA.**

### 2.1.- "2.1. Urzelai" azpieremua.

Azpieremuko lurrek hiri-lur finkatugabearen kategoria dute.

### 2.2.- "2.2. Urzelai" azpieremua.

Azpieremuko lurrek hiri-lur finkatugabearen kategoria dute.

### 2.3.- **Eremuaren gainerakoa.**

Eremuko gainerako lurrek hiri-lur finkatuaren kategoria dute, hiri-lur finkatugabeako kategorizazioari buruzko salbuespenekin, honako hauen eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik:

- \* Lehendik dagoena baino hirigintza-eraikigarritasun handiagoa baimentzen zaien titulartasun pribatuko 'c. Komunitate-ekipamendua' tipologiako partzelak.
- \* Eraikigarritasun haztatuaren gehikuntza eragiten duten hirigintza-jarduketan (erabilera-aldaketak...) xede diren partzela xehatuak.

## V.- **HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK.**

Baldintzatzaille horiek Plan honetan araututakoak (Hirigintza Arau Orokorretako 85. artikulutik 94.era bitartekoak eta dagozkien planoetan jasotakoak) eta eremu horretan eragina dutenak dira.

Honako hauek dira eremu honetan:

- \* CS.6 Ureztatzeko arriskua duten eremuak.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.3 planoan dago grafikoki irudikatuta.



- \* CS.7 Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua.  
Zerrenda hori HAPOren IEEen jasota dago baina hor IHOBEn kontu horri buruz eguneratuta duen informaziora igortzen da.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.4 planoan dago grafikoki irudikatuta.
- \* CS.8 Eremu Akustikoak.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.2 planoan dago grafikoki irudikatuta.

## **VI.- KATALOGAZIO-BALDINTZAK.**

Plan honetako "2.3 Katalogoa" dokumentuan jasotakoak eta eremu horretan eragina duten baldintzak dira.

Eremuan katalogatutako hiru elementu dira eta oinarritzko babesa dute. Honako hauek dira:

- \* Genaro Berriochoa hauspo- eta altzari-fabrikako tximinia.
- \* Urola trenbide zaharreko zubia. .
- \* Gernikako arbola etxea, 1-3.

HAPO honetako Hirigintza Arau Orokorretan xedatutakoa beteko da (95. artikulutik 100.era).

## **VII.- EGIKARITZE-ARAU BIDE XEHATUA.**

### **1. Urbanizazioaren proiektioa eta egikaritzea.**

- \* "2.1 Urzelai" azpieren urbanizazio-obren proiektua egingo da eraikinaren osagarria, planteatutako hirigintza-antolamendua zehazteko eta egikaritzeko. Proiektuaren edukia arloan indarrean dagoen legerian eta Plan Orokor honetan ezarritakora doitu da.
- \* "2.2 Rodriguez" azpieren urbanizazio-erregimena Plan Orokor honen garapenean sustatu beharreko Hirigintzako Jarduketa Programan zehazten dena izango da.
- \* Eremuaren gainerako zatian urbanizazio-obra arrunten proiektuak formulatuko dira, baldin eta bere hobekuntzarako eta berrurbanizaziorako beharrezkotzat jotzen badira, bereziki mugikortasun- eta irisgarritasun-arloan garatzen diren ekimenei erantzuteko.
- \* Modu osagarrian:
  - Baldin eta eremuan lehendik dauden eta Plan honek finkatu dituen eraikinak gutxiegitasun- edo narriadura-egoeran badaude ez dituztelako betetzen oinarritzko funtzionalitate-, segurtasun- eta bizigarritasun-baldintzak (irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna...) eraikuntza birgaitzeko eremuak mugatuko dira.

Hasiera batean eta, bere kasuan, eraikuntza birgaitzeko baterako eremuak mugatzeko komenigarritasuna baztertu gabe, aipaturiko egoeran dauden eraikin finkatu horietako bakoitza izaera horretako eremu isolatutzat joko da.



- Eremu osoaren eta/edo jakineko zati batzuen narriadura-, zaharkitze- edo ziurgabetasun-egoerak justifikatzen duen heinean, hiri-berroneratzeko edo -berritzeko eremu-multzoak edo eremu isolatuak mugatuko dira.
- Eremu horien mugapena arloan indarrean dauden xedapenetan ezarritako irizpide formal eta prozedura-irizpideetara egokituko da (Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko 7/2015 Legearen T. Bategina; 2015eko Etxebizitza Legea) eta segurtasun, osasungarritasun, bizigarritasun eta irisgarritasun unibertsala eta energiaren zentzuzko erabilera bermatzeko kasu bakoitzean egokitzat jotzen diren neurrien eta eraikuntza-birgaitzearen eta hiri-berroneratze eta -berritzearen helburuak lortzeko beste edozein neurriren zehaztapenarekin osatuko da.
- Urbanizazio-baldintzak Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak dira (101. artikulua eta ondorengoak).

## 2. Hirigintza egikaritzeko baldintzak.

- \* "2.1 Urzelai" eremuak berak bakarrik osatzen du Zuzkidurako Jarduketa Eremu bakar eta independentea.
- \* "2.2 Rodriguez" eremuak berak bakarrik osatzen du Zuzkidurako Jarduketa Eremu bakar eta independentea.  
Eremuan formulatu beharreko Hirigintzako Jarduketa Programa Plan Orokor honen indarraldiko aurreneko bost urteetan sustatu eta onartuko da.
- \* "2.1 Urzelai" eta "2.2 Rodriguez" azpieremuetan plangintzarekin bat ez datozen eraikintzat jo dira Arau Partikular honetako grafikoetan jasota dauden eta proiektatutako antolamendu berriekin ordeztea proposatzen den lehengo eraikin eta instalazioak.
- \* Oro har, jarduketa-baldintzak Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak dira (101. artikulua eta ondorengoak).
- \* Oro har, urbanizazio-kargak egikaritzeko eta finantzatzeko baldintzak Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (101. artikulutik 104.era), eta "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" eta "3.3 Jarduketa Programa" dokumentuetan ezarritakoak dira.

"2.1 Urzelai" azpieremuan, azpieremuaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek ezinezkoa egiten dute dagozkien estandarrak betetzea eta, horregatik, defizita sortzen da. Espazio libretarako defizita 62 m<sup>2</sup>-koa dela kalkulatu da eta tokiko beste zuzkidura publiko batzuetarako 590 m<sup>2</sup>-koa. Estandarraren defizit hori bere balio ekonomikoa ordainduta bete beharko da. Dena den, orokorrean emango zaio erantzuna.

"2.2 Rodriguez" azpieremuan, azpieremuaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek ezinezkoa egiten dute dagozkien estandarrak betetzea eta, horregatik, defizita sortzen da, hain zuzen ere, 28 m<sup>2</sup>-koa tokiko beste zuzkidura publiko batzuetarako. Estandarraren defizit hori bere balio ekonomikoa ordainduta bete beharko da. Dena den, orokorrean emango zaio erantzuna.

- \* Erabileren haztapan-koefizienteak Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (105. Artikulua) ezarritakoak, "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" dokumentuan deskribatuta bezala lortutakoak.



### **VIII.-INGURUMEN-ARLOKO NEURRIAK.**

Baldintzatzaile gainjarriei lotutako neurrien osagarri gisa (helburu akustikoak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, uholde-arriskua, etab.), arloan indarrean dauden xedapenetan eta proiektuetan eta Plan honetan bertan ("1.3. Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena. Ingurumen Azterketa Estrategikoa" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuak) ezarritako ingurumen-izaerako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira.

"2.1 Urzelai" eta "2.2 Rodriguez" azpieroak babes Akustiko Bereziko Zonatzat jo dira biak ala biak. Horregatik, haietan aurreikusitako hirigintza-garapenaren proiektzioa eta egikaritzea Plan Orokor honetako ingurumen-ebaluazio estrategikoko azterlanean eta, zehazki, azterlan horretan jasotako dagokion plan zonalean Eranskin gisa sartutako Inpaktu Akustikoaren Azterketan ezarritako baldintza akustikoetara egokituko da.

Eremuan kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak grafikoki irudikatuta daude IV.4 planoan. Haietan esku hartzea arloan aplikatu beharreko lege-esparrura egokituko da. Bereziki, "2.2 Rodriguez" azpieroan, organo eskudunak lurzoruaren kalitatearen alde aurretiko adierazpena ebaluatuko du otsailaren 4ko 1/2005 Legeak xedatzen duen bezala, hain zuzen ere, Hirigintzako Jarduketa Programa izapidetzen denean.


Uholde-arriskua duen azalera txiki batek eragindako hirigintza-eremua dela kontuan hartuta, indarrean dagoen aplikatu beharreko araudia bete beharko du. Jabari publiko hidraulikoari edo bere zortasun- eta polizia-zonei eragiten dien jarduketek, edozein lan edo obrari hasiera eman baino lehen, Administrazio hidrauliko eskudunaren baimenak izan behar ditu, Ura-Uraren Euskal Agentziaren Ekialdeko Arroaren bulegoetan izapidetu beharko direnak.

### **IX.- GRAFIKOAK.**

- "2.1 Urzelai" azpieroak
  - 1.- Identifikazioa, mugapena eta antolamendua. Definizio geometrikoa.
  - 2.- Zonakatze xehatua.
  - 3.- Eraikuntza- jabari- eta erabilera-baldintzak. Oinplanoak eta sekzioak.
  - 4.- Egikaritze-baldintzak.
  
- "2.2 Rodriguez" azpieroak
  - 1.- Identifikazioa, mugapena eta antolamendua. Definizio geometrikoa.
  - 2.- Zonakatze xehatua.
  - 3.- Eraikuntza- jabari- eta erabilera-baldintzak. Oinplanoak eta sekzioak.
  - 4.- Egikaritze-baldintzak.



AU.2 LABEAGA  
AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
2.1 URZELAI



ESCALA 1:500 ESKALA


AZPIESPARRUAREN MUGA --- LIMITE DEL SUBAMBITO  
PROIEKTATUTAKO SESTRA 84,50 RASANTE PROYECTADA

GRÁFICO 1. GRAFIKOA  
IDENTIFICACIÓN, DELIMITACIÓN Y ORDENACION. DEFINICIÓN GEOMÉTRICA  
IDENTIFIKAZIOA, MUGAKETA ETA ANTOLAMENDUA. DEFINIZIO GEOMETRIKOA





AU.2 LABEAGA  
AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
2.1 URZELAI



ESCALA 1:500 ESKALA




- AZPIESPARRUAREN MUGA — — — LÍMITE DE SUBÁMBITO
- PARTZELAREN MUGA - - - - LÍMITE DE PARCELA
- ERAIKUNTZA IREKIKO EGOITZA PARTZELA a.2  a.2 PARCELA RESIDENCIAL DE EDIFICACIÓN ABIERTA
- BIDE SAREA e.1  e.1 RED VIARIA

GRÁFICO 2. GRAFIKOA  
ZONIFICACIÓN PORMENORIZADA  
ZONIFIKAZIO XEHATUA







Parcela a.2/2.1



**AU.2 LABEAGA**  
**AZPIESPARRUA / SUBAMBITO**  
**2.1 URZELAI**


LURSAILAREN MUGA	---	LÍMITE DE PARCELA
DERRIGORREZKO LERROKADURA	---	ALINEACIÓN OBLIGATORIA
LERROKADURA MAXIMO	---	ALINEACIÓN MÁXIMA
FATXADAN BAIMENDUTAKO HEGALAK	---	VUELOS AUTORIZADOS EN FACHADA
GARAJEKO IBILGAILU-SARBIDEAREN NAHITAEZKO KOKAPENA	---	LOCALIZACIÓN OBLIGATORIA DE ACCESO DE VEHÍCULOS A GARAJE
BIZITEGI-ERABILERA	---	USO RESIDENCIAL
INDUSTRIA-ERABILERA	---	USO INDUSTRIAL
HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA	---	USO TERCIARIO
EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO ERABILERA	---	USO DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO
GARAJEA ETA ERABILERA OSAGARRIAK	---	GARAJE Y USOS AUXILIARES
TERRAZA ESTALIGABEA (ETXEBIZITZAREN EDO LOKAL ERANTSIAREN ERABILERA PRIBATIBOIA)	---	TERRAZA DESCUBIERTA (USO PRIVATIVO DE VIVIENDA O LOCAL ANEJO)
ERABILERA PUBLIKOKO EREMUAK	---	AREAS DE USO PÚBLICO
ERABILERA PRIBATUA. ERAIKIEZINA, BAIMENDUTAKO SESTRAPLEAN IZAN EZIK	---	USO PRIVADO NO EDIFICABLE EXCEPTO BAJO RASANTE AUTORIZADO
SESTRA PERIMETRALA	300	RASANTE PERIMETRAL
ERAIKUNTZA-ALTUERA NEURTZEKO SESTRA PERIMETRALA	350	RASANTE PERIMETRAL DE MEDICIÓN DE LA ALTURA DE EDIFICACIÓN




**GRÁFICO 3. GRAFIKOA**  
 CONDICIONES DE EDIFICACIÓN, DOMINIO Y USO PLANTAS Y SECCIONES. ERAIKITZE, ERABILTZE ETA JABETZA BALDINTZAK. OINPLANOAK ETA SEKZIOAK



AU.2 LABEAGA  
AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
2.1 URZELAI



ESCALA 1:500 ESKALA



**GRÁFICO 4. GRAFIKOA**  
CONDICIONES DE EJECUCIÓN  
GAUZATZEKO BALDINTZAK










AU.2 LABEAGA  
AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
2.2 RODRIGUEZ



ESCALA 1:500 ESKALA



- AZPIESPARRUAREN MUGA — — — LÍMITE DE SUBÁMBITO
- PARTZELAREN MUGA - - - LÍMITE DE PARCELA
- ERAIKUNTZA IREKIKO EGOITZA PARTZELA a.2  a.2 PARCELA RESIDENCIAL DE EDIFICACIÓN ABIERTA
- BIDE SAREA e.1  e.1. RED VIARIA

GRÁFICO 2. GRAFIKOA  
ZONIFICACIÓN PORMENORIZADA  
ZONIFIKAZIO XEHATUA





Parcela a.2/2.2



**AU.2 LABEAGA  
 AZPIESPARRUA / SUBBAMBITO  
 2.2 RODRIGUEZ**


LURSAILAREN MUGA		LÍMITE DE PARCELA
DERRIGORREZKO LERROKADURA		ALINEACIÓN OBLIGATORIA
LERROKADURA MAXIMO		ALINEACIÓN MÁXIMA
FATXADAN BAIMENDUTAKO HEGALAK		VUELOS AUTORIZADOS EN FACHADA
GARAJEKO IBILGAILU-SARBIDEAREN NAHITAEZKO KOKAPENA		LOCALIZACIÓN OBLIGATORIA DE ACCESO DE VEHÍCULOS A GARAJE
BIZITEGI-ERABILERA		USO RESIDENCIAL
INDUSTRIA-ERABILERA		USO INDUSTRIAL
HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA		USO TERCIARIO
EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO ERABILERA		USO DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO
GARAJEA ETA ERABILERA OSAGARRIAK		GARAJE Y USOS AUXILIARES
TERRAZA ESTALIGABEA (ETXEBIZITZAREN EDO LOKAL ERANTSIAREN ERABILERA PRIBATIBO)		TERRAZA DESCUBIERTA (USO PRIVATIVO DE VIVIENDA O LOCAL ANEJO)
ERABILERA PUBLIKOKO EREMUAK		AREAS DE USO PÚBLICO
ERABILERA PRIBATUA. ERAIKIEZINA, BAIMENDUTAKO SESTRAPLEAN IZAN EZIK		USO PRIVADO NO EDIFICABLE EXCEPTO BAJO RASANTE AUTORIZADO
SESTRA PERIMETRALA	300	RASANTE PERIMETRAL
ERAIKUNTZA-ALTUERA NEURTZEKO SESTRA PERIMETRALA	350	RASANTE PERIMETRAL DE MEDICIÓN DE LA ALTURA DE EDIFICACIÓN




**GRÁFICO 3. GRAFIKOA**  
 CONDICIONES DE EDIFICACIÓN, DOMINIO Y USO  
 PLANTAS Y SECCIONES.  
 ERAIKITZE, ERABILTZE ETA JABETZA  
 BALDINTZAK. OINPLANOAK ETA SEKZIOAK



AU.2 LABEAGA  
AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
2.2 RODRIGUEZ



ESCALA 1:500 ESKALA



**GRÁFICO 4. GRAFIKOA**  
CONDICIONES DE EJECUCIÓN  
GAUZATZEKO BALDINTZAK





## HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK "03. HE SAN MARTIN".

### **I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA DESKRIBAPENA.**

Eremuaren kokapena eta mugapena Plan honetako planoetan jasotakoak dira.

Urretxuko hiri-kokagunearen luzapena da Urola ibarrean, hiribilduaren ekialdean eta iparraldean. Bat dator batez ere bizitegitarako den ingurune batekin. Askotariko ekipamenduak hartzen ditu, baina merkataritza-jarduera eskasa du.

Hala, bizitegitarako hirigintza-garapena du eta hiriko gainerako alderdiekin eta udalerrir mugakideekin ondo komunikatutakoa (garraio publikoa, oinezkoentzako eta bizikletadunentzako sareak...).

32.491 m<sup>2</sup>-ko azalera du.

### **II.- ANTOLAMENDU-HELBURUAK ETA -IRIZPIDEAK.**

- \* Oro har, lehendik dauden eraikinak eta horien erabilerak finkatzea.
- \* Oro har, urbanizazioa finkatzea, Plan Orokor honetan eta bere garapenean mugikortasun- eta irisgarritasun-arloan planteatzen diren erabakietan ezarritakoaren arabera formulatzen diren oinezkoentzako espazio publikoa berreskuratzeko proposamenen kalterik gabe.
- \* Eremuaren antolamenduaren bilakaerari jarraipena emateko xedez, "3.1 Elgea" azpierenmua identifikatzea proposatzen da, 1.072 m<sup>2</sup>-ko azalerakoa, Iparragirre kaleko 42. eta 44. zenbakiekin bat datorrena eta Arau Partikular honetako "1 Identifikazioa, mugapena eta antolamendua. Definizio geometrikoa" grafikoan mugatutakoa. Honako antolamendu-helburu eta -irizpide hauek planteatzen dira azpierenmurako:
  - . Lekuaren hiri-berroneratzeari ekitea honako hauen bitartez: lehendik dauden eraikinak eraistea (lantegi ohia eta etxebizitzak), horietan garatutako erabilerak lekualdatu eta/edo birkokatzea eta goiko solairuetan bizitegi-eraikin berri bat eraikitzea, beheko solairua ekipamendu eta ezkaratzetara bideratzearekin osatuz. Hiri-eraldaketako ekimen hori udaleko Arau Subsidiarioetan planteatu zen, baina dokumentu honetan birdoitu egin da.
  - . Eraikinaren eta bizitegi-partzelaren lerroakadurak birdefinitzea, esku-hartzearen bitartez berrurbanizatzea proposatzen den ondoriozko espazio publiko perimetralaren antolamendu berri bat ahalbidetuz.
  - . Horretarako, azpierenmua bat dator zuzkidura-jarduketa batekin eta hori egikarizetik gutxi gorabehera, 27 etxebizitza aterako dira, gaur egun 4 etxebizitza dituen bizitegi-eraikina eraitsi ondoren, eta aipaturiko ekipamendu-zuzkidura eta sotoak garaje gisa erabiltzeko aukera.
- \* Eremuaren gainerako zatian, lehen aipaturiko azpierenmua alde batera utzita, oro har, egungo egoera finkatuko da, Barrenkale kaleko 7. zenbakiko partzelako ("a.2/3-1" partzela) beheko solairua antolatzeko aurreikuspenaren salbuespenarekin



**III.- EGITURA-ANTOLAMENDUA.****1.- KALIFIKAZIO GLOBALA.****1.1.- "A.2/03 Eraikuntza irekiko zonak" zona. ....Azal. 25.007 m<sup>2</sup>**

## \* Hirigintza-eraikigarritasuna:

## - Sestra gainean:

## - "3.1 Elgea" azpierenuan:

Arau Partikular honetako azpierenuari buruzko grafikoetan antolatutako eraikinaren inguratzaitetik sortutakoa.

## - Eremuaren gainerako zatian:

Eremuan baimendutako eraikigarritasuna lehendik dauden eta Plan honek finkatu dituen eraikinei eta horien eraikuntza-parametroei (lerrokadurak, solairu-kopurua, etab.) lotutakoa da, honako hauekin osatuta:

- . Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuen multzoan aurreikusitako eraikigarritasuna.
- . Arau Partikular honetako partzelari buruzko grafikoetan antolatutako eraikinaren inguratzaitetik sortutako "a.2/3-1" partzelan Plan honetan aurreikusitako antolamendu berriari lotutakoa.
- . Plan honek titulartasun pribatuko ekipamendu-partzelen multzoan baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikuluan xedatutakoaren arabera).

Finkatze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

## - Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.

## \* Erabilera-baldintzak:

"A.2" zona orokorrerako Plan honetan izaera orokorrekin ezarritakoak.

**1.2.- "C/03 Komunitate Ekipamendua (SO)" zona. ....Azal. 1.219 m<sup>2</sup>**

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrekin xedatutakoak dira.

**1.3.- "D.1/03 Hiriko Espazio Librea (SO)" zona. ....Azal. 3.357 m<sup>2</sup>**

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrekin xedatutakoak dira.

**1.4.- "E.1/03 Bide-sarea (SO)" zona. ....Azal. 1.886 m<sup>2</sup>**

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrekin xedatutakoak dira.



**1.5.- "E.3/03 Bizikleta-bidea (SO)" zona. ....Azal. 1.022 m<sup>2</sup>**

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrarekin xedatutakoak dira.

**2.- HIRIGINTZA-SAILKAPENA.**

Eremuko lurak hiri-lur gisa sailkatu dira.

**3.- ANTOLAMENDU XEHATUA ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.**

Eremuaren antolamendu xehatua, mugatutako "3.1. Elgea" azpierzemua barne, Plan Orokor honetan zehaztuko da.

**4.- PROGRAMAZIO- ETA EGIKARITZAPEN-ARAUBIDE OROKORRA.**

- \* "3.1. Elgea" azpierzemua:
  - Programazioa: Plan Orokor honen epemugan sustatuko da.  
Horretarako, Plan Orokorra indarrean sartu eta lehen laurtekoaren barruan egin behar da eraikuntza-lizentziaren eskaera.
- \* Egin beharreko berrurbanizazio-obra kontu horren inguruan udalak ezartzen dituen erabaki eta jarraibideen arabera egingo dira.

**IV.- ANTOLAMENDU XEHATUA.****1.- KALIFIKAZIO XEHATUA.****1.1.- "3.1. Elgea" azpierzemua.****1.1.1.- Zonakatze xehatua.**

Azpierzemuaren zonakatze xehatua Hirigintza Arau Partikular honetako 2. grafikoan jasotakoa da.

**1.1.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.**

Plan Orokorrak partzelazio-baldintza berriak proposatzen ditu Hirigintza Arau Partikular honetako 2. grafikoan grafikoki irudikatzen direnak.

**1.1.3.- Eraikigarritasuna.**

- \* Hirigintza-eraikigarritasuna:
  - Sestra gainean:  
Arau Partikular honetako azpierzemuari buruzko grafikoetan antolatutako eraikinaren inguratzaitetik sortutakoa.
  - Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.
- \* Erabilera-baldintzak:
  - Baldintza orokorrak:  
"A.2 Eraikuntza Irekiko Zonak" zona globalerako Plan honetan izaera orokorrarekin ezarritakoak.



- Bizitegi-eraikigarritasunaren araubide juridikoa:
  - . Goiko solairuetan antolatutako bizitegi-eraikigarritasuna: Arau Partikular honetako azpieroemari buruzko grafikoetan antolatutako eraikinaren inguratzailetik sortutakoa.
  - . Beheko solairuan antolatutako ekipamendu-eraikigarritasuna: Arau Partikular honetako azpieroemari buruzko grafikoetan antolatutako inguratzailetik ateratzen dena, ezkaratza, eskailera-zuloa eta gela komunak (bizikletak, zaborrak...) alde batera utzita, eta bizitegi-eraikigarritasunarekin bat datorrena.

#### 1.1.4. Eraikuntza-baldintzak

Arau partikular honetako grafikoetan zehaztutakoak dira. Dena den, "3.1 Elgea" azpieroemian esku hartzeko Xehetasun Azterketa izapidetzea behar da.

#### 1.1.5. Erabilera-baldintzak

Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak, Arau Partikular honetako azpieroemari buruzko grafikoetan zehaztutakoen arabera.

#### 1.1.6.- Jabari-baldintza partikularrak.

- \* Plan Orokor honetako "III.3" planoan eta Arau Partikular honetako grafikoetan jasotakoak dira.

### 1.2.- **Eremuaren gainerakoa.**

#### 1.2.1.- Zonakatze xehatua.

Plan Orokor honetako III.1 planoan jasotakoa.

#### 1.2.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.

Egungo partzelazioa finkatu da, kontu horri buruz Plan honetan ezarritako irizpideen arabera birdoitzearen kalterik gabe.

#### 1.2.3.- Eraikigarritasuna.

- \* Sestra gainean  
Partzela bakoitzeko eraikigarritasuna finkatu egin da, lehendik dagoen eraikinaren formari lotuta, horietako bakoitzean finkatuta eta honako hauekin osatuta:
  - Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoa.
  - Arau Partikular honetako partzelari buruzko grafikoetan antolatutako eraikinaren inguratzailetik sortutako "a.2/3-1" partzelan Plan honetan aurreikusitako antolamendu berriari lotutakoa.
  - Plan Orokor honek ekipamendu-partzela bakoitzean baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikulua).
 Sendotze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. art. eta abar).
- \* Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorretatik partzela bakoitzean ondorioztatzen dena (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).



**1.2.4.- Eraikuntza-baldintzak.****\* Eraikuntza-parametroak:****- Lerrokadurak eta sestrak:**

Lehendik dauden eta Plan honek balidatu dituen eraikinak egungo lerrokadura eta sestrekin finkatu dira, honako baldintza hauetan osatuta:

- . Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak.
- . Arau Partikular honetako grafikoetan "a.2/3-1" partzelarako ezarritakoak.
- Solairu-kopurua eta gehieneko garaiera:
  - . Sestra gainean
    - \* Partzela bakoitzean dauden eraikinak egungo solairuekin eta garaierarekin finkatu dira eta baita emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak ere eta Arau Partikular honetako grafikoetan "a.2/03-1" partzelarako Plan Orokor honetan aurreikusitakoa.
  - . Sestra azpian: partzela bakoitzean Plan honetan aurreikusitako solairu-kopurua eraikitzea baimendu da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

**1.2.5.- Erabilera-baldintzak.****\* Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak.**

Izaten diren erabilera-aldaketak Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko 40.4 artikuluan ezarritako erregulazioetan xedatutakora egokitu beharko dira.

**1.2.6.- Jabari-baldintza partikularrak.****\* Plan Orokor honetako "III.3" planoan eta Arau Partikular honetako grafikoetan jasotakoak dira.****2.- HIRI-LURRAREN KATEGORIZAZIOA.****2.1.-"3.1. Elgea" azpieremua.**

Azpieremuko lurrek hiri-lur finkatugabearen kategoria dute.

**2.3.- Eremuaren gainerakoa.**

Eremuko gainerako lurrek hiri-lur finkatuaren kategoria dute, hiri-lur finkatugabeako kategorizazioari buruzko salbuespenekin, honako hauen eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik:

- \* Lehendik dagoena baino hirigintza-eraikigarritasun handiagoa baimentzen zaien titulartasun pribatuko 'c. Komunitate-ekipamendua' tipologiako partzelak.
- \* Eraikigarritasun haztatuaren gehikuntza eragiten duten hirigintza-jarduketan (erabilera-aldaketak...) xede diren partzela xehatuak.

**V.- HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK.**

Baldintzatzaille horiek Plan honetan araututakoak (Hirigintza Arau Orokorretako 85. artikulutik 94.era bitartekoak eta dagozkien planoetan jasotakoak) eta eremu horretan eragina dutenak dira.



Honako hauek dira eremu honetan:

- \* CS.6 Ureztatzeko arriskua duten eremuak.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.3 planoan dago grafikoki irudikatuta.
- \* CS.7 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.  
Zerrenda hori HAPOren IEEEn jasota dago baina hor IHOBek kontu horri buruz eguneratuta duen informaziora igortzen da.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.4 planoan dago grafikoki irudikatuta.
- \* CS.8 Eremu Akustikoak.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.2 planoan dago grafikoki irudikatuta.

Halaber, Erbizulo edo Sagastitxipi errekaak eremua estalita zeharkatzen duela adierazten da, Plan Orokor honetako II.1 planoan grafikoki irudikatzen den bezala.

#### **VI.- KATALOGAZIO-BALDINTZAK.**

Plan honetako "2.3 Katalogoa" dokumentuan jasotakoak eta eremu horretan eragina duten baldintzak dira.

Honako hauek dira eremuan katalogatutako elementuak:

- \* Areizaga jauregia.  
Babes berezia du.  
Bat dator A motako arkeologia-babesa duen zona batekin.
- \* Urola trenbide zaharreko zubia.
- \* Urola trenbidearen geltoki ohia.

HAPO honetako Hirigintza Arau Orokorretan xedatutakoa beteko da (95. artikulutik 100.era).

#### **VII.- EGIKARITZE-ARAU BIDE XEHATUA.**

##### **1. Urbanizazioaren proiektzioa eta egikaritzea.**

- \* "3.1 Elgea" azpieren urbanizazio-obren proiektua egingo da , eraikinaren osagarria, planteatutako hirigintza-antolamendua zehazteko eta egikaritzeko. Proiektuaren edukia arloan indarrean dagoen legerian eta Plan Orokor honetan ezarritakora doitu da.
- \* "a.2/3-1" partzelako esku-hartzeak ez du urbanizazio-obrarik behar.



- \* Eremuaren gainerako zatian urbanizazio-obra arrunten proiektuak formulatuko dira, baldin eta bere hobekuntzarako eta berrurbanizaziorako beharrezkotzat jotzen badira, bereziki mugikortasun- eta irisgarritasun-arloan garatzen diren ekimenei erantzuteko.
- \* Modu osagarrian:
  - Baldin eta eremuan lehendik dauden eta Plan honek finkatu dituen eraikinak gutxiegitasun- edo narriadura-egoeran badaude ez dituztelako betetzen oinarrizko funtzionalitate-, segurtasun- eta bizigarritasun-baldintzak (irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna...) eraikuntza birgaitzeko eremuak mugatuko dira.

Hasiera batean eta, bere kasuan, eraikuntza birgaitzeko baterako eremuak mugatzeko komenigarritasuna baztertu gabe, aipaturiko egoeran dauden eraikin finkatu horietako bakoitza izaera horretako eremu isolatutzat joko da.

  - Eremu osoaren eta/edo jakineko zati batzuen narriadura-, zaharkitze- edo ziurgabetasun-egoerak justifikatzen duen heinean, hiri-berroneratzeko edo -berritzeko eremu-multzoak edo eremu isolatuak mugatuko dira.
  - Eremu horien mugapena arloan indarrean dauden xedapenetan ezarritako irizpide formal eta prozedura-irizpideetara egokituko da (Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko 7/2015 Legearen T. Bategina; 2015eko Etxebizitza Legea) eta segurtasun, osasungarritasun, bizigarritasun eta irisgarritasun unibertsala eta energiaren zentzuzko erabilera bermatzeko kasu bakoitzean egokitzat jotzen diren neurrien eta eraikuntza-birgaitzearen eta hiri-berroneratze eta -berritzearen helburuak lortzeko beste edozein neurriren zehaztapenarekin osatuko da.
  - Urbanizazio-baldintzak Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak dira (101. artikulua eta ondorengoak).

## 2. Hirigintza egikaritzeko baldintzak.

- \* "3.1 Elgea" azpieremuak berak bakarrik osatzen du Zuzkidura Eremu bakar eta independentea.
- \* "3.1 Elgea" azpieremuan plangintzarekin bat ez datozen eraikintzat jo dira Arau Partikular honetako grafikoetan jasota dauden eta proiektatutako antolamendu berriei ordeztea proposatzen den lehengo eraikin eta instalazioak.
- \* Oro har, jarduketa-baldintzak Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak dira (101. artikulua eta ondorengoak).
- \* Oro har, urbanizazio-kargak egikaritzeko eta finantzatzeko baldintzak Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (101. artikulutik 104.era), eta "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" eta "3.3 Jarduketa Programa" dokumentuetan ezarritakoak dira.
- \* Erabileren haztapen-koefizienteak Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (105. Artikulua) ezarritakoak, "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" dokumentuan deskribatuta bezala lortutakoak.



### **VIII.-INGURUMEN-ARLOKO NEURRIAK.**

Baldintzatzaile gainjarriei lotutako neurrien osagarri gisa (helburu akustikoak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, uholde-arriskua, etab.), arloan indarrean dauden xedapenetan eta proiektuetan eta Plan honetan bertan ("1.3. Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena. Ingurumen Azterketa Estrategikoa" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuak) ezarritako ingurumen-izaerako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira.

"3.1 Elgea" azpierzemua eta "a.2/3.1 Barrenkale, 7" partzela babes Akustiko Bereziko Zonatzat jo dira biak ala biak. Horregatik, haietan aurreikusitako hirigintza-garapenaren proiektzioa eta egikaritzea Plan Orokor honetako ingurumen-ebaluazio estrategikoko azterlanean eta, zehazki, azterlan horretan jasotako dagokion plan zonalean Eranskin gisa sartutako Inpaktu Akustikoaren Azterketan ezarritako baldintza akustikoetara egokituko da.

Eremuan kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak grafikoki irudikatuta daude IV.4 planoan. Haietan esku hartzea arloan aplikatu beharreko lege-esparrura egokituko da. Bereziki, "3.1 Elgea" azpierzemuan, organo eskudunak lurzoruaren kalitatearen alde aurretiko adierazpena ebaluatuko du otsailaren 4ko 1/2005 Legeak xedatzen duen bezala, hain zuzen ere, Xehetasun Azterketa izapidetzen denean.


Uholde-arriskua duen azalera txiki batek eragindako hirigintza-eremua dela kontuan hartuta, indarrean dagoen aplikatu beharreko araudia bete beharko du. Jabari publiko hidraulikoari edo bere zortasun- eta polizia-zonei eragiten dien jarduketek, edozein lan edo obrari hasiera eman baino lehen, Administrazio hidrauliko eskudunaren baimenak izan behar ditu, Ura-Uraren Euskal Agentziaren Ekialdeko Arroaren bulegoetan izapidetu beharko direnak.

### **IX.- GRAFIKOAK.**

- "3.1 Elgea" azpierzemua
  - 1.- Identifikazioa, mugapena eta antolamendua. Definizio geometrikoa.
  - 2.- Zonakatze xehatua.
  - 3.- Eraikuntza- jabari- eta erabilera-baldintzak. Oinplanoak eta sekzioak.
  - 4.- Egikaritze-baldintzak.
  
- "a.2/3.1 "Barrenkale" partzela
  - 1.- Identifikazioa, mugapena eta antolamendua. Definizio geometrikoa.
  - 2.- Zonakatze xehatua.
  - 3.- Eraikuntza- jabari- eta erabilera-baldintzak. Oinplanoak eta sekzioak.
  - 4.- Egikaritze-baldintzak.



AU.3 SAN MARTÍN  
AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
3.1 ELGEA



ESCALA 1:500 ESKALA


AZPIESPARRUAREN MUGA --- LÍMITE SUBÁMBITO  
PROIEKTATUTAKO SESTRA 350 RASANTE PROYECTADA

GRÁFICO 1. GRAFIKOA  
IDENTIFICACIÓN, DELIMITACIÓN Y ORDENACION. DEFINICIÓN GEOMÉTRICA  
IDENTIFIKAZIOA, MUGAKETA ETA ANTOLAMENDUA. DEFINIZIO GEOMETRIKOA





AU.3 SAN MARTÍN  
AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
3.1 ELGEA



ESCALA 1:500 ESKALA




- AZPIESPARRUAREN MUGA — — — LÍMITE DEL SUBÁMBITO  
PARTZELAREN MUGA - - - - LÍMITE DE PARCELA  
ERAIKUNTZA IREKIKO EGOITZA PARTZELA a.2  a.2 PARCELA RESIDENCIAL DE EDIFICACIÓN ABIERTA  
BIDE SAREA e.1  e.1 RED VIARIA


GRÁFICO 2. GRAFIKOA  
ZONIFICACIÓN PORMENORIZADA  
ZONIFIKAZIO XEHATUA




**PARCELA a.2/3.2**




**SOTANOS I,II  
I,II SOTOAK**



**PLANTA BAJA  
BEHE SOLAIRUA**




**PLANTAS I, II, III Y IV  
I, II, III ETA IV SOLAIRUAK**



**PLANTA V  
V SOLAIRUA**

ESCALA 1:1.000  
1:1.000 ESKALA




**SECCION 1  
1 SEKZIOA**

ESCALA 1:500  
1:500 ESKALA

**AU.3 SAN MARTÍN  
AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
3.1 ELGEA**


LURSAILAREN MUGA		LÍMITE DE PARCELA
DERRIGORREZKO LERROKADURA		ALINEACIÓN OBLIGATORIA
LERROKADURA MÁXIMA		ALINEACIÓN MÁXIMA
FATXADAN BAIMENDUTAKO HEGALAK		VUELOS AUTORIZADOS EN FACHADA
GARAJEKO IBILGAILU-SARBIDEAREN NAHITAEZKO KOKAPENA		LOCALIZACIÓN OBLIGATORIA DE ACCESO DE VEHÍCULOS A GARAJE
BIZITEGI-ERABILERA		USO RESIDENCIAL
INDUSTRIA-ERABILERA		USO INDUSTRIAL
HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA		USO TERCIARIO
EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO ERABILERA		USO DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO
GARAJEA ETA ERABILERA OSAGARRIAK		GARAJE Y USOS AUXILIARES
TERRAZA ESTALIGABEA (ETXEBIZITZAREN EDO LOKAL ERANTSIAREN ERABILERA PRIBATIBOIA)		TERRAZA DESCUBIERTA (USO PRIVATIVO DE VIVIENDA O LOCAL ANEJO)
ERABILERA PUBLIKOKO EREMUAK		AREAS DE USO PÚBLICO
ERABILERA PRIBATUA. ERAIKIEZINA, BAIMENDUTAKO SESTRAPLEAN IZAN EZIK		USO PRIVADO NO EDIFICABLE EXCEPTO BAJO RASANTE AUTORIZADO
SESTRA PERIMETRALA	300	RASANTE PERIMETRAL
ERAIKUNTZA-ALTUERA NEURTZEKO SESTRA PERIMETRALA	350	RASANTE PERIMETRAL DE MEDICIÓN DE LA ALTURA DE EDIFICACIÓN





**GRÁFICO 3. GRAFIKOA**  
 CONDICIONES DE EDIFICACIÓN, DOMINIO Y USO PLANTAS Y SECCIONES.  
 ERAIKITZE, ERABILTZE ETA JABETZA BALDINTZAK. OINPLANOAK ETA SEKZIOAK



AU.3 SAN MARTÍN  
AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
3.1 ELGEA



ESCALA 1:500 ESKALA


- AZPIESPARRUAREN MUGA — — — LÍMITE DE SUBÁMBITO
- HORNIDURA JARDUKETAKO EREMUAK  ÁMBITO DE ACTUACIÓN DE DOTACIÓN
- PLANGINTZAREKIN BAT EZ DATOZEN ERAIKINAK  EDIFICIOS DISCONFORMES CON EL PLANEAMIENTO

**GRÁFICO 4. GRAFIKOA**  
CONDICIONES DE EJECUCIÓN  
GAUZATZEKO BALDINTZAK





AU.3 SAN MARTÍN  
PARTZELA/PARCELA  
a.2/3.1 BARRENKALE



ESCALA 1:500 ESKALA

PARTZELAREN MUGA - - - - - LÍMITE DE PARCELA

PROIEKTATUTAKO SESTRA 84,50 RASANTE PROYECTADA


GRÁFICO 1. GRAFIKOA

IDENTIFICACIÓN, DELIMITACIÓN Y ORDENACION. DEFINICIÓN GEOMÉTRICA  
IDENTIFIKAZIOA, MUGAKETA ETA ANTOLAMENDUA. DEFINIZIO GEOMETRIKOA






AU.3 SAN MARTÍN  
PARTZELA/PARCELA  
a.2/3.1 BARRENKALE




ESCALA 1:500 ESKALA

PARTZELAREN MUGA - - - - - LÍMITE DE PARCELA  
ERAIKUNTZA IREKIKO EGOITZA PARTZELA a.2  a.2 PARCELA RESIDENCIAL DE EDIFICACIÓN ABIERTA


**GRÁFICO 2. GRAFIKOA**  
ZONIFICACIÓN PORMENORIZADA  
ZONIFIKAZIO XEHATUA






### AU.3 SAN MARTÍN PARTZELA/PARCELA a.2/3.1 BARRENKALE

LURSAILAREN MUGA		LÍMITE DE PARCELA
DERRIGORREZKO LERROKADURA		ALINEACIÓN OBLIGATORIA
LERROKADURA MAXIMOA		ALINEACIÓN MÁXIMA
FATXADAN BAIMENDUTAKO HEGALAK		VUELOS AUTORIZADOS EN FACHADA
GARAJEKO IBILGAILU-SARBIDEAREN NAHITAEZKO KOKAPENA		LOCALIZACIÓN OBLIGATORIA DE ACCESO DE VEHÍCULOS A GARAJE
BIZITEGI-ERABILERA		USO RESIDENCIAL
INDUSTRIA-ERABILERA		USO INDUSTRIAL
HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA		USO TERCIARIO
EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO ERABILERA		USO DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO
GARAJEA ETA ERABILERA OSAGARRIAK		GARAJE Y USOS AUXILIARES
TERRAZA ESTALIGABEA (ETXEBIZITZAREN EDO LOKAL ERANTSIAREN ERABILERA PRIBATIBOA)		TERRAZA DESCUBIERTA (USO PRIVATIVO DE VIVIENDA O LOCAL ANEJO)
ERABILERA PUBLIKOKO EREMUAK		AREAS DE USO PÚBLICO
ERABILERA PRIBATUA. ERAIKIEZINA, BAIMENDUTAKO SESTRAPEAN IZAN EZIK		USO PRIVADO NO EDIFICABLE EXCEPTO BAJO RASANTE AUTORIZADO
SESTRA PERIMETRALA	300	RASANTE PERIMETRAL
ERAIKUNTZA-ALTUERA NEURTZEKO SESTRA PERIMETRALA	350	RASANTE PERIMETRAL DE MEDICIÓN DE LA ALTURA DE EDIFICACIÓN





AU.3 SAN MARTÍN  
PARTZELA/PARCELA  
a.2/3.1 BARRENKALE



ESCALA 1:500 ESKALA




- PARTZELAREN MUGA  LÍMITE DE PARCELA
- HORNIDURA JARDUKETAKO EREMUAK  ÁMBITO DE ACTUACIÓN DE DOTACIÓN
- PLANGINTZAREKIN BAT EZ DATOZEN ERAIKINAK  EDIFICIOS DISCONFORMES CON EL PLANEAMIENTO

GRÁFICO 4. GRAFIKOA  
CONDICIONES DE EJECUCIÓN  
GAUZATZEKO BALDINTZAK





HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK  
"04. HE MATXINPORTA".

**I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA DESKRIBAPENA.**

Eremuaren kokapena eta mugapena Plan honetako planoetan jasotakoak dira.

Hirigunearen ipar-muturrean, Urola ibaiaren ondoan eta Urretxutik Azkoitira doan errepidearekiko lotunearen alboan kokatutako industria-asentamendua da. Beteta dago garapenari dagokionez eta sarbidea du Matxinporta kaletik. Beraz, ibilgailuen irisgarritasunerako baldintza onak ditu.

15.138 m<sup>2</sup>-ko azalera du.

**II.- ANTOLAMENDU-HELBURUAK ETA -IRIZPIDEAK.**

- \* Oro har, lehendik dauden eraikinak eta horien industria-erabilera finkatzea.
- \* Lehendik dagoen eraikina ordeztuz gero, Sagastitxipi errekaen lurpeko trazadura konponduko da titulartasun publikoko lurzoruan.
- \* Oro har, urbanizazioa finkatzea, hori hobetzeko urbanizazio-obrak egitearen kalterik gabe.

**III.- EGITURA-ANTOLAMENDUA.**

**1.- KALIFIKAZIO GLOBALA.**

**1.1.-"B.1/04 Industrialdeak" zona.....Azal. 11.992 m<sup>2</sup>**

- \* Hirigintza-eraikigarritasuna:
  - Sestra gainean:
    - Zona orokorrean dagoen eraikigarritasuna finkatu da, bertan lehendik finkatuta dauden eraikinei eta bere eraikuntza-parametroei (lerrokadurak, solairu-kopurua, etab.) lotuta, eta honako hauekin osatuta:
      - . Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuen multzoan aurreikusitako eraikigarritasuna.
      - . Plan honek titulartasun pribatuko ekipamendu-partzelen multzoan baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokoretako 65. Artikuluan xedatutakoaren arabera). 65. Hirigintzako Arau Orokorrak'.  
Finkatze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokoretako 56. artikulua).
    - Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.
- \* Erabilera-baldintzak:
 

"B.1 Industrialdeak" zona globalerako Plan honetan izaera orokorrekinekin ezarritakoak.



Ez daude baimenduta 5. kategoriako merkataritza-erabilerak, ez eta 3. eta 4. kategorietakoak ere, kasu horietan automobilen, itsasontzien eta beste ibilgailu batzuen, makinen, eraikuntzako materialen, saneamenduko produktuen, altzari eta etxetresna elektrikoen salmentan dihardutenak eta lorezaintza-zentroak eta haztegiak alde batera utzita.

Ez dago baimenduta industria-erabileraren erabilera laguntzaile gisa instalazioaren zaintzailearen etxebizitza.

**1.2.-"E.1/04 Bide-sarea (SO)" zona. ....Azal. 3.146 m<sup>2</sup>**

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrarekin xedatutakoak dira.

**2.- HIRIGINTZA-SAILKAPENA.**

Eremuko lurak hiri-lur gisa sailkatu dira.

**3.- ANTOLAMENDU XEHATUA ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.**

Eremuaren antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehaztuko da.

**4.- PROGRAMAZIO- ETA EGIKARITZAPEN-ARAUBIDE OROKORRA.**

Ez da ezarri araubide hori eremuan arautzeko egiturazko aurreikuspenik.

**IV.- ANTOLAMENDU XEHATUA.**

**1.- KALIFIKAZIO XEHATUA.**

**1.1.- Zonakatze xehatua.**

Plan Orokor honetako III.1 planoan jasotakoa.

Lehendik dagoen eraikina ordeztu den kasuetan, berregokitu egin ahal izango da Xehetasun Azterketa bat izapidetuz, betiere haren irismena partzela pribatua murriztera eta lurzoru publikoa handitzera mugatzen bada, bereziki Sagastitxipiko errekaaren trazadura hartzeko helburuarekin.

**1.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.**

Egungo partzelazioa finkatu da, kontu horri buruz Plan honetan ezarritako irizpideen arabera birdoitzearen kalterik gabe.

**1.3.- Eraikigarritasuna.**

\* Sestra ganean

Partzela bakoitzeko eraikigarritasuna finkatu egin da, lehendik dagoen eraikinaren formari lotuta, horietako bakoitzean finkatuta eta honako hauekin osatuta:

- Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoa.

Sendotze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

- \* Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorretatik partzela bakoitzean ondorioztatzen dena (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).



#### 1.4.- Eraikuntza-baldintzak.

- \* Eraikuntza-parametroak:
  - Lerrokadurak eta sestrak:  
Lehendik dauden eraikinak egungo lerrokadura eta sestekin finkatu dira, honako baldintza hauetan osatuta:
    - . Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak.
  - Solairu-kopurua eta gehieneko garaiera:
    - . Sestra gainean
      - \* Partzela bakoitzean dauden eraikinak egungo solairuekin eta garaierarekin finkatu dira eta baita emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak ere.
    - . Sestra azpian: partzela bakoitzean Plan honetan aurreikusitako solairu-kopurua eraikitzea baimendu da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

#### 1.5.- Erabilera-baldintzak.

Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak.

#### 1.6.- Jabari-baldintza partikularrak.

Arau Partikular hauetako "III.3" Planoan jasotakoak.

Lehendik dagoen eraikina ordeztzen den kasuetan, berregokitu egin ahal izango da Xehetasun Azterketa bat izapidetuz, betiere haren irismena partzela pribatua murriztera eta lurzoru publikoa handitzera mugatzen bada, bereziki Sagastitxipiko errekaaren trazadura hartzeko helburuarekin.

## 2.- **HIRI-LURRAREN KATEGORIZAZIOA.**

Eremuko lurrek hiri-lur finkatuaren kategoria dute, hiri-lur finkatugabeko kategorizazioari buruzko salbuespenekin, honako hauen eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik:

- \* Eraikigarritasun haztatuaren gehikuntza eragiten duten hirigintza-jarduketan (erabilera-aldaketak...) xede diren partzela xehatuak.

## V.- **HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK.**

Baldintzatzaille horiek Plan honetan araututakoak (Hirigintza Arau Orokorretako 85. artikulutik 94.era bitartekoak eta dagozkien planoetan jasotakoak) eta eremu horretan eragina dutenak dira.

Honako hauek dira eremu honetan:

- \* CS.6 Ureztatzeko arriskua duten eremuak.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.3 planoan dago grafikoki irudikatuta.



Lehendik dagoen eraikina ordezten den kasuetan, titulartasun publikoko lurzoruan dagoen eraginpeko ur ibilguaren lur azpiko trazadura ebatzi beharko da. Kasu horietan, zohakatze xehatua Xehetasun Azterketa izapidetuz birdoitu ahal izango da baldin eta bere irismena partzela pribatua murriztera eta lurzoru publikoa handitzera mugatzen bada, bereziki eraginpeko ibilguaren trazadura hartzeko helburuarekin.

- \* CS.7 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.  
Zerrenda hori HAPOn IEEen jasota dago baina hor IHOBek kontu horri buruz eguneratuta duen informaziora igortzen da.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.4 planoan dago grafikoki irudikatuta.
- \* CS.8 Eremu Akustikoak.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.2 planoan dago grafikoki irudikatuta.

#### **VI.- KATALOGAZIO-BALDINTZAK.**

Plan honetako "2.3 Katalogoa" dokumentuan jasotakoak eta eremu horretan eragina duten baldintzak dira. Eremuan ez dago katalogatutako elementurik.

#### **VII.- EGIKARITZE-ARAU BIDE XEHATUA.**

- \* Jarduketa-baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentuan ezarritakoak (101. artikulua eta ondorengoak).
- \* Urbanizazio-baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentuan ezarritakoak (101. artikulua eta ondorengoak).
- \* Urbanizazio-kargak egikaritzeko eta finantzatzeko baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentuan (101. artikulutik 104.era), eta "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" eta "3.3 Jarduketa Programa" dokumentuetan ezarritakoak.
- \* Erabileren haztaperen-koefizienteak.  
Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentuan (105. Artikulua) ezarritakoak, "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" dokumentuan deskribatuta bezala lortutakoak.

#### **VIII.-INGURUMEN-ARLOKO NEURRIAK.**

Baldintzatzaile gainjarri lotutako neurrien osagarri gisa (helburu akustikoak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, uholde-arriskua, etab.), arloan indarrean dauden xedapenetan eta proiektuetan eta Plan honetan bertan ("1.3. Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena. Ingurumen Azterketa Estrategikoa" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentuak) ezarritako ingurumen-izaerako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira.



Eremuan kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak grafikoki irudikatuta daude IV.4 planoan. Haietan esku hartzea arloan aplikatu beharreko lege-esparrura egokituko da.

Uholde-arriskua duen azalera txiki batek eragindako hirigintza-eremua dela kontuan hartuta, indarrean dagoen aplikatu beharreko araudia bete beharko du. Jabari publiko hidraulikoari edo bere zortasun- eta polizia-zonei eragiten dien jarduketek, edozein lan edo obrari hasiera eman baino lehen, Administrazio hidrauliko eskudunaren baimenak izan behar ditu, Ura-Uraren Euskal Agentziaren Ekialdeko Arroaren bulegoetan izapidetu beharko direnak.

## **IX.- GRAFIKOAK.**

Ez dira sartu.



HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK  
"05. HE GERRA".

**I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA DESKRIBAPENA.**

Eremuaren kokapena eta mugapena Plan honetako planoetan jasotakoak dira.

2012. urteko Arau Subsidiarioek lurzoru industrialtzat jo zuten hirigunearen ipar-muturrean kokatutako parajea da.

Eremua ez da xede horrekin garatu orain arte eta eraiki gabe dago, mendei-hegaleko larre batek okupatuta. Azkoitirako errepideko sarbidearen ondoan dago, Matxinporta eta Sagastitxipi industria-garapen finkatuen aldamenean.

8.691 m<sup>2</sup>-ko azalera du eta hiriguneko hirugarren eremu txikiena da.

**II.- ANTOLAMENDU-HELBURUAK ETA -IRIZPIDEAK.**

- \* 2012ko Arau Subsidiarioen aurreikuspena finkatu da, hain zuzen ere, eremuan industria-garapen berri bat antolatzea, bere garaian proposatutako eraikigarritasuna birdoitu egingo den arren.
- \* Eremua urbanizatzea aurreikustea eta, aldi berean, Matxinporta kaleko mugikortasun-baldintzen hobekuntza ahalbidetzea. Kale horretatik antolatuko da eremurako sarbidea.
- \* Antolamendu xehatua eremuaren garapenerako Plan Partzial bat izapidetzeari lotuko zaio.
- \* Lurzoruen ezaugarriei erreparatuta, eremua egikaritzen denean, landare-lurra hautatu eta pilatuko da xede horrekin erabiltzeari jarraipena eman ahal izateko.

**III.- EGITURA-ANTOLAMENDUA.**

**1.- KALIFIKAZIO GLOBALA.**

**1.1.-"B.1/05 Industrialdeak" zona.....Azal. 8.691 m<sup>2</sup>**

- \* Hirigintza-eraikigarritasuna:
  - Sestra gainean: 4.200 m<sup>2</sup>(s)
  - Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.
- \* Erabilera-baldintzak:  
 "B.1 Industrialdeak" zona globalerako Plan honetan izaera orokorrekin ezarritakoak.



Ez daude baimenduta 5. kategoriako merkataritza-erabilerak, ez eta 3. eta 4. kategorietakoak ere, kasu horietan automobilen, itsasontzien eta beste ibilgailu batzuen, makinen, eraikuntzako materialen, saneamenduko produktuen, altzari eta etxetresna elektrikoen salmentan dihardutenak eta lorezaintza-zentroak eta haztegiak alde batera utzita.

Ez dago baimenduta industria-erabileraren erabilera laguntzaile gisa instalazioaren zaintzailearen etxebizitza.

## **2.- HIRIGINTZA-SAILKAPENA.**

Eremuko lurrak lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatu dira.

## **3.- ANTOLAMENDU XEHATUA ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.**

Antolamendu xehatua formulatu beharreko Plan Partzialean zehaztuko da.

## **4.- PROGRAMAZIO- ETA EGIKARITZAPEN-ARAUBIDE OROKORRA.**

Behar diren Plan Partziala eta Hirigintzako Jarduketa Programa Plana indarrean sartu eta lehen laurtekoan onartu beharko dira behin betiko.

Egin beharreko urbanizazio-obrak eremuaren sustatzaileek egikarituko dituzte.

## **IV.- ANTOLAMENDU XEHATUA.**

### **1.- KALIFIKAZIO XEHATUA.**

Antolamendu xehatua eremuaren garapenerako formulatu beharreko Plan Partzialean zehaztuko da.

### **2.- LURZORU URBANIZAGARRIAREN TIPIFIKAZIOA.**

Eremuko lurrak bat datoz lurzoru urbanizagarri sektorizatu batekin.

## **V.- HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK.**

Baldintzatzaile horiek Plan honetan araututakoak (Hirigintza Arau Orokorretako 85. artikulutik 94.era bitartekoak eta dagozkien planoetan jasotakoak) eta eremu horretan eragina dutenak dira.

Honako hauek dira eremu honetan:

- \* CS.8 Eremu Akustikoak.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.2 planoan dago grafikoki irudikatuta.

## **VI.- KATALOGAZIO-BALDINTZAK.**

Plan honetako "2.3 Katalogoa" dokumentuan jasotakoak eta eremu horretan eragina duten baldintzak dira.





Eremuan ez dago katalogatutako elementurik.

#### **VII.- EGIKARITZE-ARAUBIDE XEHATUA.**

Eremuaren garapenerako formulatu behar diren Plan Partzialean eta gainerako hirigintza-dokumentu osagarrietan definituko da.

Bereziki gogorarazten dira Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko 44. artikuluko eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduko xedapenak, drainatze jasangarriaren erabilerari buruzkoak.

Administrazio hidraulikoaren baimena beharko da eraikina egiteko, hala badagokio bere garaian aplikatu beharreko araudi sektorialaren arabera.

#### **VIII.- INGURUMEN-ARLOKO NEURRIAK.**

Baldintzatzaile gainjarriei lotutako neurrien osagarri gisa (helburu akustikoak, etab.), arloan indarrean dauden xedapenetan eta proiektuetan eta Plan honetan bertan ("1.3. Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena. Ingurumen Azterketa Estrategikoa" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuak) ezarritako ingurumen-izaerako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira.

Lurzoruen ezaugarriei erreparatuta, eremua egikaritzen denean, eremuan eragindako landare-lurraren goiko geruza hautatu, pilatu eta berrerabiliko da xede horrekin erabiltzeari jarraipena eman ahal izateko, HAPO honetako IEEen berariaz ezarritakoarekin bat etorritz.

#### **IX.- GRAFIKOAK.**

Ez dira sartu.





HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK  
"06. HE SAGASTITXIPI".

**I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA DESKRIBAPENA.**

Eremuaren kokapena eta mugapena Plan honetako planoetan jasotakoak dira.

Hirigunearen ipar-muturrean, Sagastitxipi errekaostoen ibarbidean, Urretxutik Azkoitira doan errepidearekiko lotunearen alboan kokatutako industria-asantamendua da. Beteta dago garapenari dagokionez eta sarbidea du Matxinporta kaletik.

15.262 m<sup>2</sup>-ko azalera du.

**II.- ANTOLAMENDU-HELBURUAK ETA -IRIZPIDEAK.**

- \* Oro har, lehendik dauden eraikinak eta horien industria-erabilera finkatzea.
- \* Lehendik dagoen eraikina ordeztuz gero, Sagastitxipi errekaostoen lur azpiko trazadura konponduko da titulartasun publikoko lurzoruan.
- \* Oro har, urbanizazioa finkatzea, urbanizazioa bera eta ingurumen- et irisgarritasun-baldintzak eta aparkalekua hobetzeko urbanizazio-obra egitearen kalterik gabe.

**III.- EGITURA-ANTOLAMENDUA.**

**1.- KALIFIKAZIO GLOBALA.**

**1.1.-"B.1/06 Industrialdeak" zona.....Azal. 15.065 m<sup>2</sup>**

- \* Hirigintza-eraikigarritasuna:
  - Sestra gainean:
 

Zona orokorrean dagoen eraikigarritasuna finkatu da, bertan lehendik finkatuta dauden eraikinei eta bere eraikuntza-parametroei (lerrokadurak, solairu-kopurua, etab.) lotuta, eta honako hauekin osatuta:

    - . Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuen multzoan aurreikusitako eraikigarritasuna.
    - . Plan honek titulartasun pribatuko ekipamendu-partzelen multzoan baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikuluan xedatutakoaren arabera). Finkatze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).
  - Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.
- \* Erabilera-baldintzak:
 

"B.1 Industrialdeak" zona globalerako Plan honetan izaera orokorrekina ezarritakoak.

Ez daude baimenduta 5. kategoriako merkataritza-erabilerak, ez eta 3. eta 4. kategorietakoak ere, kasu horietan automobilen, itsasontzien eta beste ibilgailu batzuen, makinaren, eraikuntzako materialen, saneamenduko produktuen, altzari eta etxetresna elektrikoaren salmentan dihardutenak eta lorezaintza-zentroak eta haztegiak alde batera utzita.



Ez dago baimenduta industria-erabileraren erabilera laguntzaile gisa instalazioaren zaintzailearen etxebizitza.

**1.2.- "G.5/06 Ibilguak (SO)" zona.** .....Azal. 197 m<sup>2</sup>

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrarekin xedatutakoak dira.

**2.- HIRIGINTZA-SAILKAPENA.**

Eremuko lurak hiri-lur gisa sailkatu dira.

**3.- ANTOLAMENDU XEHATUA ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.**

Eremuaren antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehaztuko da.

**4.- PROGRAMAZIO- ETA EGIKARITZAPEN-ARAUBIDE OROKORRA.**

Ez da ezarri araubide hori eremuan arautzeko egiturazko aurreikuspenik.

**IV.- ANTOLAMENDU XEHATUA.**

**1.- KALIFIKAZIO XEHATUA.**

**1.1.- Zonakatze xehatua.**

Plan Orokor honetako III.1 planoan jasotakoa.

Lehendik dagoen eraikina ordeztu den kasuetan, berregokitu egin ahal izango da Xehetasun Azterketa bat izapidetuz, betiere haren irismena partzela pribatua murriztera eta lurzoru publikoa handitzera mugatzen bada, bereziki Sagastitxipiko errekaaren trazadura hartzeko helburuarekin.

**1.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.**

Egungo partzelazioa finkatu da, kontu horri buruz Plan honetan ezarritako irizpideen arabera birdoitzearen kalterik gabe.

**1.3.- Eraikigarritasuna.**

\* Sestra ganean

Partzela bakoitzeko eraikigarritasuna finkatu egin da, lehendik dagoen eraikinaren formari lotuta, horietako bakoitzean finkatuta eta honako hauekin osatuta:

- Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoa.

Sendotze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

- \* Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorretatik partzela bakoitzean ondorioztatzen dena (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).



#### 1.4.- Eraikuntza-baldintzak.

- \* Eraikuntza-parametroak:
  - Lerrokadurak eta sestrak:
    - Lehendik dauden eraikinak egungo lerrokadura eta sestekin finkatu dira, honako baldintza hauetan osatuta:
      - . Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak.
  - Solairu-kopurua eta gehieneko garaiera:
    - . Sestra gainean
      - \* Partzela bakoitzean dauden eraikinak egungo solairuekin eta garaierarekin finkatu dira eta baita emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak ere.
    - . Sestra azpian: partzela bakoitzean Plan honetan aurreikusitako solairu-kopurua eraikitzea baimendu da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

#### 1.5.- Erabilera-baldintzak.

Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak.

#### 1.6.- Jabari-baldintza partikularrak.

Arau Partikular hauetako "III.3" Planoan jasotakoak.

Lehendik dagoen eraikina ordeztzen den kasuetan, berregokitu egin ahal izango da Xehetasun Azterketa bat izapidetuz, betiere haren irismena partzela pribatua murriztera eta lurzoru publikoa handitzera mugatzen bada, bereziki Sagastitxipiko errekaaren trazadura hartzeko helburuarekin.

## 2.- **HIRI-LURRAREN KATEGORIZAZIOA.**

Eremuko lurrek hiri-lur finkatuaren kategoria dute, hiri-lur finkatugabeko kategorizazioari buruzko salbuespenekin, honako hauen eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik:

- \* Eraikigarritasun haztatuaren gehikuntza eragiten duten hirigintza-jarduketan (erabilera-aldaketak...) xede diren partzela xehatuak.

## V.- **HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK.**

Baldintzatzaille horiek Plan honetan araututakoak (Hirigintza Arau Orokorretako 85. artikulutik 94.era bitartekoak eta dagozkien planoetan jasotakoak) eta eremu horretan eragina dutenak dira.

Honako hauek dira eremu honetan:

- \* CS.7 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.  
Zerrenda hori HAPOren IEEEn jasota dago baina hor IHOBek kontu horri buruz eguneratuta duen informaziora igortzen da.



Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.4 planoan dago grafikoki irudikatuta.

\* CS.8 Eremu Akustikoak.

Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.2 planoan dago grafikoki irudikatuta.

Halaber, Erbizulo edo Sagastitxipi errekastoa eremuko tarteren batean partzialki estalita dagoela adierazten da, Plan Orokor honetako II.1 planoan grafikoki irudikatzen den bezala. Lehendik dagoen eraikina ordeztzen den kasuetan, titulartasun publikoko lurzoruan dagoen eraginpeko ur ibilguaren lur azpiko trazadura ebatzi beharko da. Kasu horietan, zohakatzeko xehatua Xehetasun Azterketa izapidetuz birdoitu ahal izango da baldin eta bere irismena partzela pribatua murriztera eta lurzoru publikoa handitzera mugatzen bada, bereziki eraginpeko ibilguaren trazadura hartzeko helburuarekin.

## **VI.- KATALOGAZIO-BALDINTZAK.**

Plan honetako "2.3 Katalogoa" dokumentuan jasotakoak eta eremu horretan eragina duten baldintzak dira. Eremuan ez dago katalogatutako elementurik.

## **VII.- EGIKARITZE-ARAU BIDE XEHATUA.**

\* Jarduketa-baldintzak.

Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak (101. artikulua eta ondorengoak).

\* Urbanizazio-baldintzak.

Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak (101. artikulua eta ondorengoak).

Eremuko jabeek urbanizatuko dute eremua, mugikortasun-, aparkatze- eta irisgarritasun-baldintzak egokitzeko xedez.

\* Urbanizazio-kargak egikaritzeko eta finantzatzeko baldintzak.

Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (101. artikulutik 104.era), eta "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" eta "3.3 Jarduketa Programa" dokumentuetan ezarritakoak.

\* Erabileren haztapen-koefizienteak.

Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (105. Artikulua) ezarritakoak, "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" dokumentuan deskribatuta bezala lortutakoak.

## **VIII.-INGURUMEN-ARLOKO NEURRIAK.**

Baldintzatzaile gainjarriari lotutako neurrien osagarri gisa (helburu akustikoak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, uholde-arriskua, etab.), arloan indarrean dauden xedapenetan eta proiektuetan eta Plan honetan bertan ("1.3. Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena. Ingurumen Azterketa Estrategikoa" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuak) ezarritako ingurumen-izaerako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira.



Eremuan kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak grafikoki irudikatuta daude IV.4 planoan. Haietan esku hartzea arloan aplikatu beharreko lege-esparrura egokituko da.

Uholde-arriskua duen hirigintza-eremua dela kontuan hartuta, indarrean dagoen aplikatu beharreko araudia bete beharko du. Jabari publiko hidraulikoari edo bere zortasun- eta polizia-zonei eragiten dien jarduketek, edozein lan edo obrari hasiera eman baino lehen, Administrazio hidrauliko eskudunaren baimenak izan behar ditu, Ura-Uraren Euskal Agentziaren Ekialdeko Arroaren bulegoetan izapidetu beharko direnak.

## **IX.- GRAFIKOAK.**

Ez dira sartu.





HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK  
"07. HE KANPOSANTUA".

**I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA DESKRIBAPENA.**

Eremuaren kokapena eta mugapena Plan honetako planoetan jasotakoak dira.

Bat dator hirigunearen ipar-muturrean kokatutako udal-hilerriarekin.

5.345 m<sup>2</sup>-ko azalera du.

**II.- ANTOLAMENDU-HELBURUAK ETA -IRIZPIDEAK.**

\* Hilerriko egungo instalazioak finkatzea, barrualdea egokitzearen, eguneratzearen, handitzearen eta hobetzearen kalterik gabe.

**III.- EGITURA-ANTOLAMENDUA.**

**1.- KALIFIKAZIO GLOBALA.**

**1.1.-"C/04 Komunitate Ekipamendua (SO)" zona** .....Azal. 5.345 m<sup>2</sup>

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrarekin xedatutakoak dira.

**2.- HIRIGINTZA-SAILKAPENA.**

Eremuko lurak hiri-lur gisa sailkatu dira.

**3.- ANTOLAMENDU XEHATUA ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.**

Eremuaren antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehaztuko da.

**4.- PROGRAMAZIO- ETA EGIKARITZAPEN-ARAUBIDE OROKORRA.**

Ez da ezarri araubide hori eremuan arautzeko egiturazko aurreikuspenik.

**IV.- ANTOLAMENDU XEHATUA.**

**1.- KALIFIKAZIO XEHATUA.**

1.1.- Zonakatze xehatua.

Plan Orokor honetako III.1 planoan jasotakoa.



### 1.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.

Egungo partzelazioa finkatu da, kontu horri buruz Plan honetan ezarritako irizpideen arabera birdoitzearen kalterik gabe.

### 1.3.- Eraikigarritasuna.

- \* Sestra gainean  
Lehendik dagoen eraikigarritasuna finkatu da, honako hauekin osatuta:
  - Plan Orokor honek ekipamendu-partzela bakoitzean baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikulua).
  - Finkatze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. art.).
- \* Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorretatik partzela bakoitzean ondorioztatzen dena (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

### 1.4.- Eraikuntza-baldintzak.

- \* Eraikuntza-parametroak:
  - Lerrokadurak eta sestrak:  
Lehendik dauden eraikinak egungo lerrokadura eta sestrekin finkatu dira, honako baldintza hauetan osatuta:
  - Plan Orokor honek ekipamendu-partzela bakoitzean baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikulua).
  - Solairu-kopurua eta gehieneko garaiera:
    - . Sestra gainean
      - \* Partzela bakoitzean dauden eraikinak egungo solairuekin eta garaierarekin finkatu dira eta baita emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak ere.
    - . Sestra azpian: partzela bakoitzean Plan honetan aurreikusitako solairu-kopurua eraikitzea baimendu da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

### 1.5.- Erabilera-baldintzak.

Antolatutako azpizona xehatuaren tipologiarako Plan honetan ezarritakoak.

### 1.6.- Jabari-baldintza partikularrak.

Arau Partikular hauetako "III.3" Planoan jasotakoak.

## 2.- **HIRI-LURRAREN KATEGORIZAZIOA.**

Eremuko lurrek hiri-lur finkatugabearen kategoria dute.

## V.- **HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK.**

Baldintzatzaille horiek Plan honetan araututakoak (Hirigintza Arau Orokorretako 85. artikulutik 94.era bitartekoak eta dagozkien planoetan jasotakoak) eta eremu horretan eragina dutenak dira.



Honako hauek dira eremu honetan:

- \* CS.8 Eremu Akustikoak.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.2 planoan dago grafikoki irudikatuta.

## **VI.- KATALOGAZIO-BALDINTZAK.**

Plan honetako "2.3 Katalogoa" dokumentuan jasotakoak eta eremu horretan eragina duten baldintzak dira.

Honako hauek dira eremuan oinarritzko babesa duten katalogatutako elementuak:

- \* Urretxuko udal-hilerriko portalea.
- \* Iparragirrerren mausoleoa.
- Sagastitxipiko Santa Kutz ermita.  
Gainera, bat dator A motako arkeologia-presuntzioa duen zona batekin.

HAPO honetako Hirigintza Arau Orokorretan xedatutakoa beteko da (95. artikulutik 100.era).

## **VII.- EGIKARITZE-ARAU BIDE XEHATUA.**

- \* Jarduketa-baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak (101. artikulua eta ondorengoak).
- \* Urbanizazio-baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak (101. artikulua eta ondorengoak).  
Eremuko jabeek urbanizatuko dute eremua, mugikortasun-, aparkatze- eta irisgarritasun-baldintzak egokitzeko xedez.
- \* Urbanizazio-kargak egikaritzeko eta finantzatzeko baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (101. artikulutik 104.era), eta "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" eta "3.3 Jarduketa Programa" dokumentuetan ezarritakoak.
- \* Erabileren haztapen-koefizienteak.  
Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (105. Artikulua) ezarritakoak, "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" dokumentuan deskribatuta bezala lortutakoak.



**VIII.- INGURUMEN-ARLOKO NEURRIAK.**

Baldintzatzaile gainjarriei lotutako neurrien osagarri gisa (helburu akustikoak, etab.), arloan indarrean dauden xedapenetan eta proiektuetan eta Plan honetan bertan ("1.3. Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena. Ingurumen Azterketa Estrategikoa" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuak) ezarritako ingurumen-izaerako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira.

**IX.- GRAFIKOAK.**

Ez dira sartu.



**HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK**  
**"08. HE GURUTZE AUZOA".**

**I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA DESKRIBAPENA.**

Eremuaren kokapena eta mugapena Plan honetako planoetan jasotakoak dira.

Hirigunearen Iparrean, Irimo mendiaren magalean kokatutako bizitegi-eremua da. Gaur egun egikaritzen ari da. Bi etxebizitza-bloke eraiki dira eta hirugarrena eraikuntza-fasean dago.

Lurralde bat dator Elizalde eta hilerriaren artean kokatutako mendi-hegalarekin. 2012ko Arau Subsidiarioek aurreikusitako antolamenduak, gainera, espazio libreak, ekipamendu-partzela bat eta aire zabaleko aparkalekuak ere aurreikusten ditu.

Lekuak babes publikoko etxebizitzaren nahiz etxebizitza libreen eskaintza du, egikaritzen ari dena. Hiriko gainerako alderdiekin eta udalerrri mugakideekin ondo komunikatuta dago (oinezkoentzako eta bizikletadunentzako sareak...).

16.971 m<sup>2</sup>-ko azalera du.

**II.- ANTOLAMENDU-HELBURUAK ETA -IRIZPIDEAK.**

- \* Eremuaren egungo antolamendu-baldintzak finkatu egin dira bere bizitegi-xedearekin. Antolamendu-baldintza horiek 2012ko Arau Subsidiarioetatik sortu ziren eta eremuaren Hirigintzako Jarduketa Programan zehaztu dira.
- \* Ezarritako programazio- eta egikaritze-baldintzak birdoitzearen aurreikuspen osagarria, xede horretarako egikaritze-hitzarmena sustatuz.
- \* Eremua bat dator jarduketa integratu batekin eta 79 etxebizitza daude egikaritu gabe, 22 eraikitzen ari dira eta 44 bukatuta daude.

**III.- EGITURA-ANTOLAMENDUA.**

**1.- KALIFIKAZIO GLOBALA.**

**1.1.-"A.2/08 Eraikuntza irekiko zonak" zona.** .....Azal. 16.971 m<sup>2</sup>

- \* Hirigintza-eraikigarritasuna:
  - Sestra ganean:
 

Finkatu egin da eremuan indarrean dagoen plangintzak aurreikusitako eraikigarritasuna, 2102ko Arau Subsidiarioetan ezarritakoa eta 2015eko Hirigintzako Jarduketa Programan garatutakoa, lehendik finkatua dauden eraikinei, horien eraikuntza-parametroei (lerrokadurak, solairu-kopurua, etab.) eta eraikitzen ari diren edo oraindik egikaritu ez diren partzeletarako aurreikusitako zehaztapenei lotuta baliozkotzen dena.
  - Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.



- \* Erabilera-baldintzak:  
"A.2 Eraikuntza irekiko bizitegitarako zonak" zona globalerako Plan honetan izaera orokorrarekin ezarritakoak.

## **2.- HIRIGINTZA-SAILKAPENA.**

Eremuko lurak hiri-lur gisa sailkatu dira.

## **3.- ANTOLAMENDU XEHATUA ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.**

Eremuaren antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehaztuko da.

Finkatu egin dira eremuan indarrean dauden plangintzako zehaztapenak, 2012ko Arau Subsidiarioetan ezarritakoak eta 2015eko Hirigintzako Jarduketa Programan eta behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako aldaketetan garatutakoak.

## **4.- PROGRAMAZIO- ETA EGIKARITZAPEN-ARAUBIDE OROKORRA.**

Horretarako, 2015eko Hirigintzako Jarduketa Programan jasotakoa bete beharko da.

Hala ere, programazio- eta egikaritze-baldintzak aldatu ahal izango dira ekimen pribatuaren eta udalaren artean egikaritze-hitzarmena formulatuz.

## **IV.- ANTOLAMENDU XEHATUA.**

### **1.- KALIFIKAZIO XEHATUA.**

#### **1.1.- Zonakatze xehatua.**

Plan Orokor honetako III.1 planoan jasotakoa, 2012ko Arau Subsidiarioetan, 2015eko Hirigintzako Jarduketa Programan eta behar bezala izapidetu eta behin betiko onartutako Aldaketetan ezarritakoarekin bat datorrena.

#### **1.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.**

Egungo partzelazioa finkatu da, kontu horri buruz Plan honetan ezarritako irizpideen arabera birdoitzearen kalterik gabe.

#### **1.3.- Eraikigarritasuna.**

- \* Sestra ganean  
Partzela bakoitzeko eraikigarritasuna finkatu egin da, lehendik dagoen eraikinaren formari lotuta, horietako bakoitzean finkatuta eta honako hauekin osatuta:
  - Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoa.
  - 2015eko Hirigintzako Jarduketa Programan jasotakoa oraindik garatu gabeko partzeletan.



Sendotze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

- \* Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorretatik partzela bakoitzean ondorioztatzen dena (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

#### 1.4.- Eraikuntza-baldintzak.

- \* Eraikuntza-parametroak:
    - Lerrokadurak eta sestrak:
      - Lehendik dauden eta Plan honek balidatu dituen eraikinak egungo lerrokadura eta sestekin finkatu dira, honako baldintza hauetan osatuta:
        - . Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak.
        - . - 2015eko Hirigintzako Jarduketa Programan jasotakoak oraindik garatu gabeko partzeletan.
      - Solairu-kopurua eta gehieneko garaiera:
        - . Sestra gainean
          - \* Partzela bakoitzean dauden eraikinak egungo solairuekin eta garaierarekin finkatu dira. Baita emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak eta oraindik garatu gabeko partzeletan 2015eko Hirigintzako Jarduketa programan jasota daudenak ere.
          - . Sestra azpian: partzela bakoitzean Plan honetan aurreikusitako solairu-kopurua eraikitzea baimendu da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).
- Administrazio hidraulikoaren baimena beharko da eraikina egiteko, hala badagokio bere garaian aplikatu beharreko araudi sektorialaren arabera.

#### 1.5.- Erabilera-baldintzak.

Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak.

#### 1.6.- Jabari-baldintza partikularrak.

Plan Partikular honetako "III.3" planoan jasotakoak eta 2015eko Hirigintzako Jarduketa Programan jasotako zehaztapen baliozkotuak transkribatzen dituztenak.

## 2.- **HIRI-LURRAREN KATEGORIZAZIOA.**

Eremuko lurak hiri-lur finkatu gabearen kategorian sartu dira, hiri-lur finkatutzat jo diren partzela egikaritzen salbuespenarekin.

## V.- **HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK.**

Baldintzazaile horiek Plan honetan araututakoak (Hirigintza Arau Orokorretako 85. artikulutik 94.era bitartekoak eta dagozkien planoetan jasotakoak) eta eremu horretan eragina dutenak dira.

Honako hauek dira eremu honetan:

- \* CS.8 Eremu Akustikoak.
  - Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.2 planoan dago grafikoki irudikatuta.



## **VI.- KATALOGAZIO-BALDINTZAK.**

Plan honetako "2.3 Katalogoa" dokumentuan jasotakoak eta eremu horretan eragina duten baldintzak dira.

Eremuan ez dago katalogatutako elementurik.

## **VII.- EGIKARITZE-ARAU BIDE XEHATUA.**

- \* Jarduketa-baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak (101. artikulua eta ondorengoak).  
Bereziki, plangintza xehatua egikaritzeko esparruan definitutakoak, bere berrikuspenaren kalterik gabe.
- \* Urbanizazio-baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak (101. artikulua eta ondorengoak).  
Bereziki, plangintza xehatua egikaritzeko esparruan, bere berrikuspenaren kalterik gabe.
- \* Urbanizazio-kargak egikaritzeko eta finantzatzeko baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (101. artikulutik 104.era), eta "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" eta "3.3 Jarduketa Programa" dokumentuetan ezarritakoak.  
Bereziki, plangintza xehatua egikaritzeko esparruan, bere berrikuspenaren kalterik gabe.
- \* Erabileren haztapan-koefizienteak.  
Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (105. Artikulua) ezarritakoak, "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" dokumentuan deskribatuta bezala lortutakoak.  
Bereziki, plangintza xehatua egikaritzeko esparruan definitutakoak, bere berrikuspenaren kalterik gabe.

## **VIII.- INGURUMEN-ARLOKO NEURRIAK.**

Baldintzatzaile gainjarriei lotutako neurrien osagarri gisa (helburu akustikoak, etab.), arloan indarrean dauden xedapenetan eta proiektuetan eta Plan honetan bertan ("1.3. Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena. Ingurumen Azterketa Estrategikoa" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuak) ezarritako ingurumen-izaerako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira.

## **IX.- GRAFIKOAK.**

Ez dira sartu.





HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK  
"09. HE ELIZALDE".

**I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA DESKRIBAPENA.**

Eremuaren kokapena eta mugapena Plan honetako planoetan jasotakoak dira.

Hirigunearen Iparrean, Gune historikoaren aldamenean kokatutako bizitegi-eremua da. Guztiz egikarituta dago eta espazio libreak eta beste zuzkidura publiko batzuk ditu.

Lekua hiriko gainerako alderdiekin eta udalerrri mugakideekin ondo komunikatuta dago (oinezkoentzako eta bizikletadunentzako sareak...).

19.703 m<sup>2</sup>-ko azalera du.

**II.- ANTOLAMENDU-HELBURUAK ETA -IRIZPIDEAK.**

- \* Lehendik dauden eraikinak eta horien erabilerak finkatzea.
- \* Urbanizazioa finkatzea.

**III.- EGITURA-ANTOLAMENDUA.**

**1.- KALIFIKAZIO GLOBALA.**

**1.1.- "A.2/09 Eraikuntza irekiko zonak" zona.** .....Azal. 19.703 m<sup>2</sup>

- \* Hirigintza-eraikigarritasuna:
  - Sestra gainean:
    - Zona orokorrean dagoen eraikigarritasuna finkatu da, bertan lehendik finkatuta dauden eraikinei eta bere eraikuntza-parametroei (lerrokadurak, solairu-kopurua, etab.) lotuta, eta honako hauekin osatuta:
      - . Plan honek titulartasun pribatuko ekipamendu-partzelen multzoan baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 70. Artikuluan xedatutakoaren arabera).  
Sendotze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 47. art. eta abar).
    - Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.
- \* Erabilera-baldintzak:
  - "A.2 Eraikuntza irekiko bizitegitarako zonak" zona globalerako Plan honetan izaera orokorrenekin ezarritakoak.

**2.- HIRIGINTZA-SAILKAPENA.**

Eremuko lurak hiri-lur gisa sailkatu dira.



### 3.- ANTOLAMENDU XEHATUA ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.

Eremuaren antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehaztuko da.

### 4.- PROGRAMAZIO- ETA EGIKARITZAPEN-ARAUBIDE OROKORRA.

Ez da ezarri araubide hori eremuan arautzeko egiturazko aurreikuspenik.

## IV.- ANTOLAMENDU XEHATUA.

### 1.- KALIFIKAZIO XEHATUA.

#### 1.1.- Zonakatze xehatua.

Plan Orokor honetako III.1 planoan jasotakoa.

#### 1.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.

Egungo partzelazioa finkatu da, kontu horri buruz Plan honetan ezarritako irizpideen arabera birdoitzearen kalterik gabe.

#### 1.3.- Eraikigarritasuna.

\* Sestra gainean

Partzela bakoitzeko eraikigarritasuna finkatu egin da, lehendik dagoen eraikinaren formari lotuta, horietako bakoitzean finkatuta eta honako hauekin osatuta:

- Plan Orokor honek ekipamendu-partzela bakoitzean baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikulua).

Finkatze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. art.).

\* Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorretatik partzela bakoitzean ondorioztatzen dena (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

#### 1.4.- Eraikuntza-baldintzak.

\* Eraikuntza-parametroak:

- Lerrokadurak eta sestrak:

Lehendik dauden eraikinak egungo lerrokadura eta sestrekin finkatu dira, honako baldintza hauetan osatuta:

- Plan Orokor honek ekipamendu-partzela bakoitzean baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikulua).

- Solairu-kopurua eta gehieneko garaiera:

. Sestra gainean

\* Finkatu egin dira partzela bakoitzean lehendik dauden eraikinak egungo garaierarekin eta solairu-kopuruarekin.

. Sestra azpian: partzela bakoitzean Plan honetan aurreikusitako solairu-kopurua eraikitzea baimendu da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).



### 1.5.- Erabilera-baldintzak.

Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak.

### 1.6.- Jabari-baldintza partikularrak.

Plan Orokor honetako III.3 planoan jasotakoak.

## 2.- **HIRI-LURRAREN KATEGORIZAZIOA.**

Eremuko lurrek hiri-lur finkatuaren kategoria dute, hiri-lur finkatugabeko kategorizazioari buruzko salbuespenekin, honako hauen eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik:

- \* Eraikigarritasun haztatuaren gehikuntza eragiten duten hirigintza-jarduketan (erabilera-aldaketak...) xede diren partzela xehatuak.

## V.- **HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK.**

Baldintzatzaille horiek Plan honetan araututakoak (Hirigintza Arau Orokorretako 85. artikulutik 94.era bitartekoak eta dagozkien planoetan jasotakoak) eta eremu horretan eragina dutenak dira.

Honako hauek dira eremu honetan:

- \* CS.8 Eremu Akustikoak.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.2 planoan dago grafikoki irudikatuta.

## VI.- **KATALOGAZIO-BALDINTZAK.**

Plan honetako "2.3 Katalogoa" dokumentuan jasotakoak eta eremu horretan eragina duten baldintzak dira.

Eremuan ez dago katalogatutako elementurik.

## VII.- **EGIKARITZE-ARAU BIDE XEHATUA.**

- \* Jarduketa-baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak (101. artikulua eta ondorengoak).
- \* Urbanizazio-baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak (101. artikulua eta ondorengoak).

- \* Urbanizazio-kargak egikaritzeko eta finantzatzeko baldintzak.  
Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (101. artikulutik 104.era), eta "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" eta "3.3 Jarduketa Programa" dokumentuetan ezarritakoak.
- \* Erabileren haztapan-koefizienteak.  
Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (105. Artikulua) ezarritakoak, "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" dokumentuan deskribatuta bezala lortutakoak.

### **VIII.- INGURUMEN-ARLOKO NEURRIAK.**

Baldintzatzaile gainjarriei lotutako neurrien osagarri gisa (helburu akustikoak, etab.), arloan indarrean dauden xedapenetan eta proiektuetan eta Plan honetan bertan ("1.3. Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena. Ingurumen Azterketa Estrategikoa" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuak) ezarritako ingurumen-izaerako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira.

### **IX.- GRAFIKOAK.**

Ez dira sartu.

## HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK "10. HE NEKOLALDE".

### **I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA DESKRIBAPENA.**

Eremuaren kokapena eta mugapena Plan honetako planoetan jasotakoak dira.

Irimoren mendi-magalean dagoen Urretxuko hiri-asantamendua da, hirigunearen ondoan dagoena, Santa Barbarako errepidean bermatuta, hain zuzen ere, eremuko lehen bizitegi-asantamendua ezarri zen tokian: Santa Barbara multzoa.

Batez ere bizitegitarako ingurunea da, baina baditu ekipamendu-partzelak eta azalera eraiki gabeak ere, bereziki, Elizalde kalearen aurrealdean.

Hiriko gainerako alderdiekin eta udalerrri mugakideekin ondo komunikatuta dago (oinezkoentzako eta bizikletadunentzako sareak...), baina arazoak ditu irisgarritasun-arloan.

31.351 m<sup>2</sup>-ko azalera du.

### **II.- ANTOLAMENDU-HELBURUAK ETA -IRIZPIDEAK.**

- \* Oro har, finkatu egin dira lehendik dauden eraikinak eta horien erabilerak, horiek birgaitzeko obrak eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzak hobetzekoak ahalbidetzearen kalterik gabe.
- \* Oro har, urbanizazioa finkatzea, Plan Orokor honetan eta bere garapenean mugikortasun- eta irisgarritasun-arloan planteatzen diren erabakietan ezarritakoaren arabera formulatzen diren oinezkoentzako espazio publikoa berreskuratzeko proposamenen kalterik gabe.
- \* "10.1 Altamira-Santa Bárbara" azpieremuaren mugapena, 21.201 m<sup>2</sup>-ko azalera, Arau Partikular honetako "1.1 Identifikazioa, mugapena eta antolamendua. Definizio geometrikoa" grafikoan mugatutakoa. Honako hauek planteatzen dira azpieremuan:
  - . Eremua berrantolatzea, irisgarritasun-baldintzak eta Santa Barbara multzoa hiri-bilbean txertatzeko baldintzak errazten ahaleginduz. Horretarako, Elizalde kalea Santa Barbararekin lotuko duen igogailu publikoa jartzea eta gainazaleko urbanizazioa hobetzea proposatzen da.
  - . Elizalde kalearen bide-sekzioa zabaltzea, galtzada txikituz eta mendebaldeko espaloia zabalduz.
  - . Bide-sekzioa zabaltzea Nekolalde kaleko 9., 11. eta 13. Zenbakien aurrealdean, oinezkoen mugikortasuna errazteko eta aparkalekua antolatzeko. Horretarako, nahitaezkoa da Altamira baserria botatzea.
  - . Eremuan bizitegi-garapen integratu berri bat antolatzea, beheko solairuko lokalekin eta garajetara bideratutako sotoekin, indarreko legeriak eskatutako gutxienezkoa baino zuzkidura handiagoa aurreikusiz guneko historikoari eta bere ingurune hurbilenari zerbitzua emateko. Txandakako aparkaleku gisa ere erabil liteke.



Hiri-eraldaketako ekimen hori udaleko Arau Subsidiarioetan planteatu zen, eta neurri handi batean dokumentu honetan birdoitu egin da.

- . Urola ibaiaren eta Matxinporta kalearen artean udal-sistema orokorrean txertatuko den espazio libre bat antolatzea.
- . Udalaren erdigunean ekipamendu-partzela bat antolatzea.
- . Horretarako, azpierenua bat dator jarduketa integratu batekin eta hori egikaritzetik gutxi gorabehera, 65 etxebizitza aterako dira, Altamira baserria eraitsi ondoren. Eraikinaren beheko solairuan, bestalde, lokalak gaituko dira eta sotoan garajeak. Aurreikusitako 65 etxebizitzetatik 28 babes publikoko etxebizitzak izango dira.

- \* Eremuaren gainerako zatiak, lehen aipaturiko eta berariaz mugatutako azpierenua sartu gabe, 10.150 m<sup>2</sup>-ko azalera du eta, oro har, egungo egoera finkatuko da, birgaitzearen kalterik gabe.

### III.- EGITURA-ANTOLAMENDUA.

#### 1.- KALIFIKAZIO GLOBALA.

##### 1.1.- "A.2/10 Eraikuntza irekiko zonak" zona. ....Azal. 20.107 m<sup>2</sup>

- \* Hirigintza-eraikigarritasuna:

- Sestra gainean:
  - "10.1.Altamira-Santa Bárbara" azpierenuan.....6.120 m<sup>2</sup>(s)
  - Eremuaren gainerako zatian:  
Eremuan baimendutako eraikigarritasuna lehendik dauden eta Plan honek finkatu dituen eraikinei eta horien eraikuntza-parametroei (lerrokadurak, solairu-kopurua, etab.) lotutakoa da, honako hauekin osatuta:
    - . Plan honek titulartasun pribatuko ekipamendu-partzelen multzoan baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokoretako 65. Artikuluan xedatutakoaren arabera). 65. Hirigintzako Arau Orokorrak'.
    - Finkatze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokoretako 56. artikulua).
- Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.

- \* Erabilera-baldintzak:

"A.2" zona orokorrerako Plan honetan izaera orokorrekin ezarritakoak.

##### 1.2.- "C/10 Komunitate Ekipamendua (SO)" zona. ....Azal. 4.092 m<sup>2</sup>

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrekin xedatutakoak dira.

##### 1.3.- "D.1/10 Hiriko Espazio Librea (SO)" zona. ....Azal. 2.576 m<sup>2</sup>

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrekin xedatutakoak dira.



**1.4.- "E.1/10 Bide-sarea (SO)" zona. ....Azal. 4.576 m<sup>2</sup>**

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrarekin xedatutakoak dira.

**2.- HIRIGINTZA-SAILKAPENA.**

Eremuko lurak hiri-lur gisa sailkatu dira.

**3.- ANTOLAMENDU XEHATUA ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.**

\* Eremuaren antolamendu xehatua, mugatutako "10.1. Altamira-Santa Barbara" azpieroemua barne, Plan Orokor honetan zehaztuko da.

**4.- PROGRAMAZIO- ETA EGIKARITZAPEN-ARAUBIDE OROKORRA.**

Behar den Hirigintzako Jarduketa Programa Plana indarrean sartu eta lehen laurtekoan onartu beharko da behin betiko, indarrean sartzen denetik kontatzen hasita.

Egin beharreko urbanizazio-obrak eremuaren sustatzaileek egikaritutako dituzte.

**IV.- ANTOLAMENDU XEHATUA.****1.- KALIFIKAZIO XEHATUA.****1.1.- "10.1 Altamira-Santa Bárbara" azpieroemua.****1.1.1.- Zonakatze xehatua.**

Azpieroemuaren zonakatze xehatua Hirigintza Arau Partikular honetako 2. grafikoan jasotakoa da.

**1.1.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.**

Plan Orokorrak partzelazio-baldintza berriak proposatzen ditu Hirigintza Arau Partikular honetako 2. grafikoan grafikoki irudikatzen direnak.

**1.1.3.- Eraikigarritasuna.**

- \* Hirigintza-eraikigarritasuna:
  - Sestra gainean: 7.758 m<sup>2</sup>(s).
  - Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.
- \* Erabilera-baldintzak:
  - Baldintza orokorrak:
    - "A.2 Eraikuntza irekiko bizitegitarako zonak" zona globalerako Plan honetan izaera orokorrarekin ezarritakoak.
  - Bizitegi-eraikigarritasunaren araubide juridikoa:
    - . Lehendik dagoen bizitegi-eraikigarritasuna: 195 m<sup>2</sup>(s).
    - . Bizitegi-eraikigarritasun berria (gehikuntza):
      - \* Babes publiko, sozial eta tasatuko etxebizitzaren (BPSTE) araubideari lotuta (gutxieneko eraikigarritasuna, % 40): 2.262 m<sup>2</sup>(s).



- \* Sustapen librekoa (SL) (gehieneko eraikigarritasuna, % 60): 3.393 m<sup>2</sup>(s).
  - \* Gehikuntza osoa (% 100): 5.655 m<sup>2</sup>(s).
- Bizitegi-eraikigarritasun berriaren % 20, gutxienez, babes sozialeko etxebizitzetara bideratuko da (1.131 m<sup>2</sup>(s)).
- . Ondoriozko bizitegi-eraikigarritasun totala: 5.850 m<sup>2</sup>(s).
  - Baimendutako beste erabilera batzuetara (hirugarren sektorekoak...) bideratutako sestra gainerako eraikigarritasuna: 270 m<sup>2</sup>(s).
  - Baimendutako beste erabilera batzuetara (garajeak "a.2/10.2" partzelan): bideratutako sestra gainerako eraikigarritasuna: 1.638 m<sup>2</sup>(s).
- \* Eraikigarritasun-baldintzak sestra gainerako partzelako:
- "a.2/10.1" partzela:
    - . Bizitegi-eraikigarritasun totala: 4.760 m<sup>2</sup>(s).
    - . BPSTE bizitegi-eraikigarritasuna: 2.262 m<sup>2</sup>(s).
    - . SL bizitegi-eraikigarritasuna: 2.498 m<sup>2</sup>(s).
    - . Hirugarren sektoreko eraikigarritasuna: 270 m<sup>2</sup>(s).
  - "a.2/10.2" partzela:
    - . Bizitegi-eraikigarritasuna: 1.090 m<sup>2</sup>(s).
    - . Garaje-eraikigarritasuna: 1.638 m<sup>2</sup>(s).

#### 1.1.4. Eraikuntza-baldintzak.

Arau partikular honetan jasotako grafikoetan azpierreuari buruzko grafikoetan zehaztutakoak dira.

#### 1.1.5. Erabilera-baldintzak

Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak, Arau Partikular honetako azpierreuari buruzko grafikoetan zehaztutakoen arabera.

#### 1.1.6.- Jabari-baldintza partikularrak.

- \* Plan Orokor honetako "III.3" planoan eta Arau Partikular honetako grafikoetan jasotakoak dira.

### 1.2.- Eremuaren gainerakoa.

#### 1.2.1.- Zonakatze xehatua.

Plan Orokor honetako III.1 planoan jasotakoa.

#### 1.2.2.- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.

Egungo partzelazioa finkatu da, kontu horri buruz Plan honetan ezarritako irizpideen arabera birdoitzearen kalterik gabe.





### 1.2.3.- Eraikigarritasuna.

- \* Sestra gainean  
Partzela bakoitzeko eraikigarritasuna finkatu egin da, lehendik dagoen eraikinaren formari lotuta, horietako bakoitzean finkatuta eta honako hauekin osatuta:
  - Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoa.
  - Plan Orokor honek ekipamendu-partzela bakoitzean baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikulua).
 Sendotze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. art. eta abar).
- \* Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorretatik partzela bakoitzean ondorioztatzen dena (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

### 1.2.4.- Eraikuntza-baldintzak.

- \* Eraikuntza-parametroak:
  - Lerrokadurak eta sestrak:  
Lehendik dauden eraikinak egungo lerrokadura eta sestrekin finkatu dira, honako baldintza hauetan osatuta:
    - . Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak.
  - Solairu-kopurua eta gehieneko garaiera:
    - . Sestra gainean
      - \* Partzela bakoitzean dauden eraikinak egungo solairuekin eta garaierarekin finkatu dira eta baita emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuetan aurreikusitakoak ere.
    - . Sestra azpian: partzela bakoitzean Plan honetan aurreikusitako solairu-kopurua eraikitzea baimendu da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

### 1.2.5.- Erabilera-baldintzak.

- \* Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak.

### 1.2.6.- Jabari-baldintza partikularrak.

- \* Plan Orokor honetako "III.3" planoan eta Arau Partikular honetako grafikoetan jasotakoak dira.

## 2.- **HIRI-LURRAREN KATEGORIZAZIOA.**

### 2.1.- "10.1 Altamira-Santa Bárbara" azpieremua.

Azpieremuko lurrek hiri-lur finkatugabearen kategoria dute.

### 2.2.- **Eremuaren gainerakoa**

Eremuko gainerako lurrek hiri-lur finkatuaren kategoria dute, hiri-lur finkatugabeko kategorizazioari buruzko salbuespenekin, honako hauen eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik:

- \* Lehendik dagoena baino hirigintza-eraikigarritasun handiagoa baimentzen zaien titulartasun pribatuko 'c. Komunitate-ekipamendua' tipologiako partzelak.



- \* Eraikigarritasun haztatuaren gehikuntza eragiten duten hirigintza-jarduketan (erabilera-aldaketak...) xede diren partzela xehatuak.

## **V.- HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK.**

Baldintzatzaille horiek Plan honetan araututakoak (Hirigintza Arau Orokorretako 85. artikulutik 94.era bitartekoak eta dagozkien planoetan jasotakoak) eta eremu horretan eragina dutenak dira.

Honako hauek dira eremu honetan:

- \* CS.7 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.  
Zerrenda hori HAPOren IEEen jasota dago baina hor IHOBEk kontu horri buruz eguneratuta duen informaziora igortzen da.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.4 planoan dago grafikoki irudikatuta.
- \* CS.8 Eremu Akustikoak.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.2 planoan dago grafikoki irudikatuta.

## **VI.- KATALOGAZIO-BALDINTZAK.**

Plan honetako "2.3 Katalogoa" dokumentuan jasotakoak eta eremu horretan eragina duten baldintzak dira.

Oinarrizko babesak duen katalogatutako elementu bat dago eremuan:

- \* Santa Barbarako galtzada zaharraren zatia.

HAPO honetako Hirigintza Arau Orokorretan xedatutakoa beteko da (95. artikulutik 100.era).

## **VII.- EGIKARITZE-ARAU BIDE XEHATUA.**

### **1. Urbanizazioaren proiektzioa eta egikaritzea.**

- \* "10.1 Altamira-Santa Barbara" azpieren, urbanizazio-erregimena Plan Orokor honen garapenean sustatu beharreko Hirigintzako Jarduketako Programan zehazten dena izango da.

Espazio libreen sistema orokor gisa kalifikatutako lurzoruan, urbanizazioak kontuan hartuko du, bereziki, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren 40.2 eta 45. artikuluetan xedatutakoa.

Administrazio hidraulikoaren baimena beharko du egikaritzeak, hala badagokio bere garaian aplikatzekoa den araudi sektorialaren arabera.



- \* Eremuaren gainerako zatian urbanizazio-obra arrunten proiektuak formulatuko dira, baldin eta bere hobekuntzarako eta berrurbanizaziorako beharrezkotzat jotzen badira, bereziki mugikortasun- eta irisgarritasun-arloan garatzen diren ekimenei erantzuteko eta Matxinporta kalearen eta Urola ibaiaren artean espazio librean sistema orokorrak urbanizatzeko.
- \* Modu osagarrian:
  - Baldin eta eremuan lehendik dauden eta Plan honek finkatu dituen eraikinak gutxiegitasun- edo narriadura-egoeran badaude ez dituztelako betetzen oinarrizko funtzionalitate-, segurtasun- eta bizigarritasun-baldintzak (irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna...) eraikuntza birgaitzeko eremuak mugatuko dira.
  - Hasiera batean eta, bere kasuan, eraikuntza birgaitzeko baterako eremuak mugatzeko komenigarritasuna baztertu gabe, aipaturiko egoeran dauden eraikin finkatu horietako bakoitza izaera horretako eremu isolatutzat joko da.
  - Eremu osoaren eta/edo jakineko zati batzuen narriadura-, zaharkitze- edo ziurgabetasun-egoerak justifikatzen duen heinean, hiri-berroneratzeko edo -berritzeko eremu-multzoak edo eremu isolatuak mugatuko dira.
  - Eremu horien mugapena arloan indarrean dauden xedapenetan ezarritako irizpide formal eta prozedura-irizpideetara egokituko da (Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko 7/2015 Legearen T. Bategina; 2015eko Etxebizitza Legea) eta segurtasun, osasungarritasun, bizigarritasun eta irisgarritasun unibertsala eta energiaren zentzuzko erabilera bermatzeko kasu bakoitzean egokitzen jotzen diren neurrien eta eraikuntza-birgaitzearen eta hiri-berroneratze eta -berritzearen helburuak lortzeko beste edozein neurriren zehaztapenarekin osatuko da.
  - Urbanizazio-baldintzak Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak dira (101. artikulua eta ondorengoak).

## 2. Hirigintza egikaritzeko baldintzak.

- \* "10.1 Altamira-Santa Barbara" azpieremuak berak bakarrik osatzen du Jarduketa Integratuko Eremu bakar eta independentea.
 

Eremuan formulatu beharreko Hirigintzako Jarduketa Programa Plan Orokor honen indarraldiko aurreneko lau urteetan sustatu eta onartuko da. Azpieremuko jakineko lur batzuei buruz jabeekin bere garaian izenpetutako hitzarmenean xedatutakoa hartuko da kontuan.
- \* "10.1 Altamira-Santa Bárbara" azpieremuan Altamira baserria plangintzarekin bat ez datorrela erabaki da, Arau Partikular honetako grafikoetan jaso den bezala.
- \* Oro har, jarduketa-baldintzak Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak dira (101. artikulua eta ondorengoak).
- \* Oro har, urbanizazio-kargak egikaritzeko eta finantzatzeko baldintzak Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (101. artikulutik 104.era), eta "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" eta "3.3 Jarduketa Programa" dokumentuetan ezarritakoak dira.



- \* Erabileren haztapan-koefizienteak Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (105. Artikulua) ezarritakoak, "3.1 Bideragarritasun Ekonomikoko Azterlana" dokumentuan deskribatuta bezala lortutakoak.

### **VIII.- INGURUMEN-ARLOKO NEURRIAK.**

Baldintzatzaile gainjarriei lotutako neurrien osagarri gisa (helburu akustikoak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, etab.), arloan indarrean dauden xedapenetan eta proiektuetan eta Plan honetan bertan ("1.3. Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena. Ingurumen Azterketa Estrategikoa" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuak). ezarritako ingurumen-izaerako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira.

"10.1 Altamira-Santa Bárbara" azpierzemua babes Akustiko Bereziko Zonatzat jo da. Horregatik, bertan aurreikusitako hirigintza-garapenaren proiektzioa eta egikaritzea Plan Orokor honetako ingurumen-ebaluazio estrategikoko azterlanean eta, zehazki, azterlan horretan jasotako dagokion plan zonalean Eranskin gisa sartutako Inpaktu Akustikoaren Azterketan ezarritako baldintza akustikoetara egokituko da.


Eremuan kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak grafikoki irudikatuta daude IV.4 planoan. Haietan esku hartzea arloan aplikatu beharreko lege-esparrura egokituko da.

"10.1 Altamira-Santa Bárbara" azpierzemuaren ezaugarriak eta eskaintzen dituen aukerak kontuan hartuta, iparraldean antolatutako tokiko espazio libreetara bideratutako partzela berria zuhaitzak aldatzea planteatzen da, dagokion estandarri erantzuna emateko eta "a.2/10.2" partzela egikaritzearen ondoriozko zuhaitz-galera eta beste jarduketa batzuk egikaritzean gerta daitezkeen defizita konpentsatzeko.

### **IX.- GRAFIKOAK.**

- "10.1 Altamira-Santa Bárbara" azpierzemua.
  - 1.- Identifikazioa, mugapena eta antolamendua. Definizio geometrikoa.
  - 2.- Zonakatze xehatua.
  - 3.- Eraikuntza- jabari- eta erabilera-baldintzak. Oinplanoak eta sekzioak.
    - 3.1.- "a.2/10.1" partzela
    - 3.2.- "a.2/10.2" partzela
  - 4.- Egikaritze-baldintzak.






AU.10 NEKOLALDE  
AZPIESPARRUA / SUBÁMBITO  
10.1 ALTAMIRA-SANTA BARBARA

AZPIESPARRUAREN MUGA - - - LÍMITE DE SUBÁMBITO  
PROIEKTATUTAKO SESTRA 350 RASANTE PROYECTADA



GRÁFICO 1. GRAFIKOA  
IDENTIFICACIÓN, DELIMITACIÓN Y  
ORDENACION. DEFINICIÓN GEOMÉTRICA  
IDENTIFIKAZIOA, MUGAKETA ETA  
ANTOLAMENDUA. DEFINIZIO GEOMETRIKOA





ESCALA 1:2.000 ESKALA

AU.10 NEKOLALDE  
 AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
 10.1 ALTAMIRA-SANTA BARBARA

- AZPIESPARRUAREN MUGA - - - LÍMITE DE SUBÁMBITO
- PARTZELAREN MUGA - - - LÍMITE DE PARCELA
- ERAIKUNTZA IREKIKO a.2 EGOITZA PARTZELA a.2 PARCELA RESIDENCIAL DE EDIFICACIÓN ABIERTA
- EKIPAMENDURAKO c PARTZELA c. PARCELA DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO
- ESPASIO LIBRE d.1 OROKORRA(S.O.) d.1 ESPACIO LIBRE GENERAL (S.G.)
- TOKIKO ESPASIO d.2 LIBREA (T.S.) d.2 ESPACIO LIBRE LOCAL
- BIDE SAREA e.1 e.1 RED VIARIA





GRÁFICO 2. GRAFIKOA  
 ZONIFICACIÓN PORMENORIZADA  
 ZONIFIKAZIO XEHATUA







PARCELA a.2/10.1



AU.10 NEKOLALDE  
 AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
 10.1 ALTAMIRA-SANTA BARBARA


LURSAILAREN MUGA		LÍMITE DE PARCELA
DERRIGORREZKO LERROKADURA		ALINEACIÓN OBLIGATORIA
LERROKADURA MAXIMOA		ALINEACIÓN MÁXIMA
FATXADAN BAIMENDUTAKO HEGALAK		VUELOS AUTORIZADOS EN FACHADA
GARAJEKO IBILGAILU-SARBIDEAREN NAHITAEZKO KOKAPENA		LOCALIZACIÓN OBLIGATORIA DE ACCESO DE VEHÍCULOS A GARAJE
BIZITEGI-ERABILERA		USO RESIDENCIAL
INDUSTRIA-ERABILERA		USO INDUSTRIAL
HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA		USO TERCIARIO
EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO ERABILERA		USO DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO
GARAJEA ETA ERABILERA OSAGARRIAK		GARAJE Y USOS AUXILIARES
TERRAZA ESTALIGABEA (ETXEBIZITZAREN EDO LOKAL ERANTSIAREN ERABILERA PRIBATIBOIA)		TERRAZA DESCUBIERTA (USO PRIVATIVO DE VIVIENDA O LOCAL ANEJO)
ERABILERA PUBLIKOKO EREMUAK		AREAS DE USO PÚBLICO
ERABILERA PRIBATUA. ERAIKIEZINA, BAIMENDUTAKO SESTRAPEAN IZAN EZIK		USO PRIVADO NO EDIFICABLE EXCEPTO BAJO RASANTE AUTORIZADO
SESTRA PERIMETRALA	300	RASANTE PERIMETRAL
ERAIKUNTZA-ALTUERA NEURTZEKO SESTRA PERIMETRALA	350	RASANTE PERIMETRAL DE MEDICIÓN DE LA ALTURA DE EDIFICACIÓN




**GRÁFICO 3.1 GRAFIKOA**  
 CONDICIONES DE EDIFICACIÓN, DOMINIO Y USO PLANTAS Y SECCIONES.  
 ERAIKITZE, ERABILTZE ETA JABETZA BALDINTZAK. OINPLANOAK ETA SEKZIOAK




**PARCELA a.2/10.2**



**PLANTAS I, II, III  
 I, II, III SOLAIRUAK**




**PLANTA BAJA  
 BEHE SOLAIRUA**



**SOTANOS I,II  
 I,II SOTOAK**

ESCALA 1:1.000  
 1:1.000 ESKALA




**SECCION 1  
 1 SEKZIOA**

ESCALA 1:500  
 1:500 ESKALA

**AU.10 NEKOLALDE  
 AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
 10.1 ALTAMIRA-SANTA BARBARA**

- LURSAILAREN MUGA LÍMITE DE PARCELA
- DERRIGORREZKO LERROKADURA ALINEACIÓN OBLIGATORIA
- LERROKADURA MAXIMOA ALINEACIÓN MÁXIMA
- FATXADAN BAIMENDUTAKO HEGALAK VUELOS AUTORIZADOS EN FACHADA
- GARAJEKO IBILGAILU-SARBIDEAREN NAHITAEZKO KOKAPENA LOCALIZACIÓN OBLIGATORIA DE ACCESO DE VEHÍCULOS A GARAJE
- BIZITEGI-ERABILERA USO RESIDENCIAL
- INDUSTRIA-ERABILERA USO INDUSTRIAL
- HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA USO TERCIARIO
- EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO ERABILERA USO DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO
- GARAJEA ETA ERABILERA OSAGARRIAK GARAJE Y USOS AUXILIARES
- TERRAZA ESTALIGABEA (ETXEBIZITZAREN EDO LOKAL ERANTSIAREN ERABILERA PRIBATIBOIA) TERRAZA DESCUBIERTA (USO PRIVATIVO DE VIVIENDA O LOCAL ANEJO)
- ERABILERA PUBLIKOKO EREMUAK AREAS DE USO PÚBLICO
- ERABILERA PRIBATUA, ERAIKIEZINA, BAIMENDUTAKO SESTRAPEAN IZAN EZIK USO PRIVATIVO NO EDIFICABLE EXCEPTO BAJO RASANTE AUTORIZADO
- SESTRA PERIMETRALA 300 RASANTE PERIMETRAL
- ERAIKUNTZA-ALTUERA NEURTZEKO SESTRA PERIMETRALA 350 RASANTE PERIMETRAL DE MEDICIÓN DE LA ALTURA DE EDIFICACIÓN




**GRÁFICO 3.2 GRAFIKOA**



CONDICIONES DE EDIFICACIÓN, DOMINIO Y USO PLANTAS Y SECCIONES.  
 ERAIKITZE, ERABILTZE ETA JABETZA BALDINTZAK. OINPLANOAK ETA SEKZIOAK







AU.10 NEKOLALDE  
AZPIESPARRUA / SUBAMBITO  
10.1 ALTAMIRA-SANTA BARBARA

- AZPIESPARRUAREN MUGA - - - LÍMITE DE SUBÁMBITO  
JARDUKETA INTEGRATUKO EREMUJA  ÁMBITO DE ACTUACIÓN INTEGRADA  
PLANGINTZAREKIN BAT EZ DATOZEN ERAIKINAK  EDIFICIOS DISCONFORMES CON EL PLANEAMIENTO




GRÁFICO 4. GRAFIKOA  
CONDICIONES DE EJECUCIÓN  
GAUZATZEKO BALDINTZAK



## HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK "11. HE GAINZURI-MUNDO MEJOR".

### **I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA DESKRIBAPENA.**

Eremuaren kokapena eta mugapena Plan honetako planoetan jasotakoak dira.

Irimo mendiaren hegalean kokatutako zuzkidura- eta bizitegi-asantamendua da. Hala, kiroldegia, Gainzuri eskolaren instalazioak eta komentu bat hartzen ditu, eta baita Mundo Mejor, Basagasti eta Sorginzuloko bizitegi-garapenak ere. Bi azken horiekin lehenengoa hiri-bilbean txertatzea ahalbidetu da. Hala ere, Labeaga kaletik oso hurbil dauden hiriguneko auzo garai horietarako irisgarritasun-baldintzak hobetu egin behar dira.

40.951 m<sup>2</sup>-ko azalera du.

### **II.- ANTOLAMENDU-HELBURUAK ETA -IRIZPIDEAK.**

- \* Oro har, finkatu egin dira lehendik dauden eraikinak eta horien erabilerak, jarduketa berrienen ondoriozkoak barne (Basagasti, Sorginzulo...) horiek birgaitzeko obrak eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzak hobetzekoak ahalbidetzearen kalterik gabe, bereziki Mundo Mejor etxe-taldean.
- \* Oro har, urbanizazioa finkatzea, Plan Orokor honetan eta bere garapenean mugikortasun- eta irisgarritasun-arloan planteatzen diren erabakietan ezarritakoaren arabera formulatzen diren oinezkoarentzako espazio publikoa berreskuratzeko proposamenen kalterik gabe.
- \* Auzo garaietarako irisgarritasun-baldintzak hobetzea, udalerriko Irisgarritasun Planean eta Plan Orokor honetan planteatzen diren bitarteko mekanikoak ezartzeko arloan neurriak ezarriz, Labeagatik Gainzurirako eskaileraren irekierarekin bere garaian planteatutako neurrien eta egikaritzen ari den Kalerrota eta Labeaga arteko soluzioaren ildoan beste urrats bat emanaz.
- \* Komentuaren eta haren mugakide den familia bakarreko bizitegi-eraikuntzaren ordez, Gainzuriko eskola-partzela publikoaren goialderako eta goiko auzoetarako irisgarritasun-baldintzen hobekuntzari erantzungo dion bizitegi-garapena ezartzea. Antolamenduak, gainera, 1.784 m<sup>2</sup>-ko partzela bat mugatzea aurreikusten du, ekipamendu publikorako, Labeaga kalearen ondoan, eta bizitegi-partzela bat mendi hegalean, zaku-hondoko bide bat Gainzuriko eskolaraino luzatzean oinarrituta. Horretarako, 6.369 m<sup>2</sup>-ko azalera "11.1 Gainzuri" azpideremua mugatzea proposatzen da, "1.1 Identifikazioa, mugaketa eta antolamendua" grafikoan mugatuta, goiko auzoetarako irisgarritasuna hobetzeko obrak lurzoru publikoko azpideremutik kanpo zabaltzearen kalterik gabe. Bizitegi-partzelak babes publikoko 25 etxebizitza (sozialak eta tasatuak) eta 40 etxebizitza libre hartzeko aukera ematen du, lehendik zeuden komentuko ekipamendu pribatuaren eta familia bakarreko etxebizitzaren ordez. Horretarako finkatzen dira proposatzen diren epeak: Hirigintzako Jarduketa Programa ekimen pribatuak egin eta Udalari aurkeztuko dio, gehienez ere 18 hilabeteko epean, Plan Orokor hau indarrean sartzetik zenbatzen hasita, eta jarduketan egin beharreko urbanizazio-obrak ekimen pribatuak egikaritzeko ditu, gehienez ere hiru urteko epean erreferentziako data beretik kontatzen hasita. Jarduketan aurreikusitako helburuak noraino iristen diren kontuan hartuta, epe horiek betetzen ez badira, Udalak lankidetzaren sistemaren



bidez edo zuzeneko okupazioaren bidez jardun ahal izango du, eta, baita, aipatutako helburua betetzeko, Plan Orokorren aldaketa bat bultzatzeko..

### III.- EGITURA-ANTOLAMENDUA.

#### 1.- KALIFIKAZIO GLOBALA.

1.1.- "A.2/11 Eraikuntza irekiko zonak" zona. ....Azal. 40.951 m<sup>2</sup>

\* Hirigintza-eraikigarritasuna:

- Sestra gainean:

- "11.1 "Gainzuri Komentua" azpierzemuan: ..... 7.500 m<sup>2</sup>(s).

- Eremuaren gainerakoan:

Baimendutako eraikigarritasuna bertan lehendik finkatuta dauden eraikinei eta bere eraikuntza-parametroei (lerrokadurak, solairu-kopurua, etab.) lotutakoa da, honako hauekin osatuta:

. Emandako udal-lizentzien xede diren eta garapen- eta egikaritze-prozesuan dauden eraikuntza-proiektuen multzoan aurreikusitako eraikigarritasuna.

. Plan honek titulartasun pribatuko ekipamendu-partzelen multzoan baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikuluan xedatutakoaren arabera).

Sendotze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

- Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.

\* Erabilera-baldintzak:

"A.2 Eraikuntza irekiko bizitegitarako zonak" zona globalerako Plan honetan izaera orokorarekin ezarritakoak.

Bereziki, 11.1 azpierzemuan bizitegi-erabilerako 2.430 m<sup>2</sup>(s) babes publikoko etxebizitza gisa kalifikatutakoei lotutakoak.

1.2.- "C/11 Komunitate Ekipamendua (SO)" zona. ....Azal. 9.578 m<sup>2</sup>

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorarekin xedatutakoak dira.

1.3.- "E.1/11 Bide-sarea (SO)" zona. ....Azal. 1.718 m<sup>2</sup>

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorarekin xedatutakoak dira.

#### 2.- HIRIGINTZA-SAILKAPENA.

Eremuko lurak hiri-lur gisa sailkatu dira.

#### 3.- ANTOLAMENDU XEHATUA ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.

Eremuaren antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehaztuko da.





#### 4.- PROGRAMAZIO- ETA EGIKARITZAPEN-ARAUBIDE OROKORRA.

"11.1 Gainzuri Komentua" azpierzemuko jarduketarako Hirigintzako Jarduketa Programa ekimen pribatuak egin eta Udalarari aurkeztuko dio, gehienez ere 18 hilabeteko epean, Plan Orokor hau indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita, eta jarduketan egin beharreko urbanizazio-obrak ekimen pribatuak egikaritzeko ditu, gehienez ere hiru urteko epean erreferentziako data beretik kontatzen hasita. Jarduketan aurreikusitako helburuak noraino iristen diren kontuan hartuta, epe horiek betetzen ez badira, Udalak lankidetzaren sistemen bidez edo zuzeneko okupazioaren bidez jardun ahal izango du.

Gainzuri Komentua azpierzemuan eraikitzeko lizentziak Plan Orokorra indarrean sartzen denetik sei urteko epean eskatu beharko dira.

Ez da ezarri araubide hori eremuaren gainerako zatian arautzeko egiturazko aurreikuspenik.

#### IV.- ANTOLAMENDU XEHATUA.

##### 1.- KALIFIKAZIO XEHATUA.

##### "11.1. Gainzuri Komentua" azpierzemua.

##### - Zonakatze xehatua.

Plan Orokor honetako III.1 planoan eta Arau Partikular honetako grafikoetan jasotakoa.

##### - Hirigintza-partzelazioko baldintzak.

"11.1 Gainzuri Komentua" azpierzemuan identifikatutako bizitegi-partzela proiektatutako bide berrira gutxienez 9,00 metroko aurrealdea duten partzeletan zatitu ahal izango da.

##### - Eraikigarritasuna.

##### \* Hirigintza-eraikigarritasuna:

- Sestra gainean: 7.500 m<sup>2</sup>(s).
- Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorren ondoriozkoa.

##### \* Erabilera-baldintzak:

- Baldintza orokorrak:
  - "A Eraikuntza Irekiko Zonak" zona orokorrerako Plan honetan izaera orokorrarekin ezarritakoak
- Bizitegi-eraikigarritasunaren araubide juridikoa:
  - . Bizitegi-eraikigarritasun antolatua: 6.430 m<sup>2</sup>(s).
  - . Lehendik dagoen bizitegi-eraikigarritasuna: 357 m<sup>2</sup>(s).
  - . Bizitegi-eraikigarritasun berria (gehikuntza):
    - \* Babes publiko, sozial eta tasatuko etxebizitzaren erregimenari lotuta (gutxienezko eraikigarritasuna, % 40): 2.430 m<sup>2</sup>(s).  
(babes publiko sozialeko etxebizitzak: 1.215 m<sup>2</sup>(s) gutxienez)
    - \* Sustapen librekoa (gehienezko eraikigarritasuna, % 60): 3.643 m<sup>2</sup>(s).
    - \* Gehikuntza osoa (% 100): 6.073 m<sup>2</sup>(s).



Bizitegi-eraikigarritasun osoaren gehikuntzaren % 20, gutxienez, babes sozialeko etxebizitzetara bideratuko da (1.215 m<sup>2</sup> (s)).

- Baimendutako beste erabilera batzuetara (hirugarren sektorekoak, ezkaratzak eta elementu komunak barne) bideratutako sestra gainerako eraikigarritasuna: 1.070 m<sup>2</sup>(s).

- Eraikuntza-baldintzak.

Arau Partikular honetako azpieroemuari buruzko grafikoetan zehaztutakoak dira. Igogailu publikoa a priori bereizitako bi blokeen artean kokatu ahal izango da, ahal dela hegoalderantz, egoki bada.

Ondorioz, sestra gainerako honako profil hau aurreikusten da: beheko solairu bat eta goiko bost solairu sotoko hiru solairuren gainera.

- Erabilera-baldintzak.

Plan honetan antolaturiko azpieroemu xehatuen tipologia bakoitzerako ezarritakoak, Arau Partikular honetako azpieroemuari buruzko grafikoetan zehaztutakoaren arabera.

- Jabari-baldintza partikularrak.

- \* Plan Orokor honetako "III.3" planoan eta Arau Partikular honetako grafikoetan jasotakoak. Bizitegi-partzelaren gainera, espaloari jarraipena emango zaio eta aparkalekuak antolatuko dira; batak nahiz besteek erabilera publikoko zortasuna izango dute, bai eta proiektatutako ataripeak ere. Halaber, erabilera publikoko zortasunaren mende egongo dira aurreikusitako igogailua eta pasabideak edo azkenean horietarako zehazten diren irtenbideak.

## 1.2.- Eremuaren gainerakoa.

- Zonakatze xehatua.

Plan Orokor honetako III.1 planoan jasotakoa.

- Hirigintzako partzelazio-baldintzak.

Egungo partzelazioa finkatu da, kontu horri buruz Plan honetan ezarritako irizpideen arabera birdoitzearen kalterik gabe.

- Eraikigarritasuna.

- \* Sestra gainera

Partzela bakoitzeko eraikigarritasuna finkatu egin da, lehendik dagoen eraikinaren formari lotuta, horietako bakoitzean finkatuta eta honako hauekin osatuta:

- Plan Orokor honek ekipamendu-partzela bakoitzean baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikulua).

Sendotze hori Plan honetan ezarritako baldintzetan egingo da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

- \* Sestra azpian: Plan honetan ezarritako irizpide orokorretatik partzela bakoitzean ondorioztatzen dena (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).



- Eraikuntza-baldintzak.

\* Eraikuntza-parametroak:

- Lerrokadurak eta sestrak:  
Lehendik dauden eraikinak egungo lerrokadura eta sestekin finkatu dira, honako baldintza hauetan osatuta:
- Plan Orokor honek ekipamendu-partzela bakoitzean baimendutakoa (Hirigintza Arau Orokorretako 65. Artikulua).
- Solairu-kopurua eta gehieneko garaiera:
  - . Sestra gainean
    - \* Finkatu egin dira partzela bakoitzean lehendik dauden eraikinak egungo garaierarekin eta solairu-kopuruarekin.
  - . Sestra azpian: partzela bakoitzean Plan honetan aurreikusitako solairu-kopurua eraikitzea baimendu da (Hirigintza Arau Orokorretako 56. artikulua).

- Erabilera-baldintzak.

Antolatutako azpizona xehatuen tipologia bakoitzerako Plan honetan ezarritakoak.

- Jabari-baldintza partikularrak.

Plan Orokor honetako III.3 planoan jasotakoak.

## 2.- HIRI-LURRAREN KATEGORIZAZIOA.

Eremuko lurrek hiri-lur finkatuaren kategoria dute, hiri-lur finkatugabeko kategorizazioari buruzko salbuespenekin, honako hauen eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik:

- \* Lehendik dagoena baino hirigintza-eraikigarritasun handiagoa baimentzen zaien titulartasun pribatuko 'c. Komunitate-ekipamendua' tipologiako partzelak.
- \* Eraikigarritasun haztatuaren gehikuntza eragiten duten hirigintza-jarduketan (erabilera-aldaketak...) xede diren partzela xehatuak.
- \* "11.1 Gainzuri komentua" azpierzemua finkatu gabeko hiri-lurzorutzat jotzen da, urbanizazio finkaturik ez duelako.

## V.- HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK.

Baldintzatzaille horiek Plan honetan araututakoak (Hirigintza Arau Orokorretako 85. artikulutik 94.era bitartekoak eta dagozkien planoetan jasotakoak) eta eremu horretan eragina dutenak dira.

Honako hauek dira eremu honetan:

- \* CS.7 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.  
Zerrenda hori HAPOren IEEEn jasota dago baina hor IHOBEn kontu horri buruz eguneratuta duen informaziora igortzen da.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.4 planoan dago grafikoki irudikatuta.



- \* CS.8 Eremu Akustikoak.  
Horien kokapena Plan Orokor honetako IV.2 planoan dago grafikoki irudikatuta.

## **VI.- KATALOGAZIO-BALDINTZAK.**

Plan honetako "2.3 Katalogoa" dokumentuan jasotakoak eta eremu horretan eragina duten baldintzak dira.

Eremuan ez dago katalogatutako elementurik.

## **VII.- EGIKARITZE-ARAU BIDE XEHATUA.**

### **1. Urbanizazioaren proiektioa eta egikaritzea.**

- \* "11.1 Ginzuri Komentua" azpieremuan Hirigintzako Jarduketa Programa bat egingo da, bai eta dagozkion urbanizazio- eta kudeaketa-proiektuak ere. Haren edukia arlo horretan indarrean dagoen legerian eta Plan Orokor honetan ezarritakora dokituko da. Plan Orokor hau garatzean sustatu beharreko urbanizazio-araubidea zehaztuko du hark. Hitzarmen-sistemaren bidez jardutea aurreikusten da, proposamenaren irismena kontuan hartuta eta ekimen pribatuak epe barruan esku hartzen ez badu, Administrazioak lankidetzaren sistema edo zuzeneko okupazioa aukeratzearen kalterik gabe.
- \* Eremuaren gainerakoan, urbanizazio-obra arruntan proiektuak formulatuko dira, baldin eta beharrezkotzat jotzen badira hura hobetzeko eta berrurbanizatzeko eta, bereziki, mugikortasunaren eta irisgarritasunaren arloan garatzen diren ekimenei erantzuteko.
- \* Modu osagarrian:
  - Eremuan lehendik dauden eta Plan honek finkatu dituen eraikinak gutxiegitasun- edo narriadura-egoeran badaude, oinarriko funtzionaltasun-, segurtasun- eta bizigarritasun-baldintzak (irisgarritasuna, efizientzia energetikoa...) betetzen ez dituztelako, eraikinak birgaitzeko eremuak mugatuko dira.  
  
Hasiera batean eta, hala badagokio, eraikinak birgaitzeko eremu bateratuak mugatzea komeni dela baztertu gabe, egoera horretan dauden eraikin finkatuak izaera horretako eremu isolatutzat hartuko dira.
  - Eremu osoaren eta/edo zati jakin batzuen narriadurak, zaharkitzeak, segurtasunik ezak eta abarrek justifikatzen duten heinean, hiri-berronertze eta -berrikuntzako eremu bateratu edo isolatuak mugatuko dira.
  - Eremu horien mugaketa arlo horretan indarrean dauden xedapenetan ezarritako irizpide formalei eta prozedurazkoei egokituko zaie (7/2015 Legea, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzkoa; 2015eko Etxebizitza Legea), eta osatzeko, kasu bakoitzean egokitzen jotzen diren neurriak zehaztuko dira segurtasuna, osasungarritasuna, bizigarritasuna, irisgarritasun unibertsala eta energiaren zentzuzko erabilera bermatzeko, bai eta eraikinak birgaitzeko eta hiri berronertzeko eta berritzeko helburuak lortzeko egokitzen jotzen diren beste edozein neurri ere.



- Urbanizazio-baldintzak Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak dira (101. artikulua eta ondorengoak).

## 2. Hirigintza egikaritzeko araubidea.

- \* "11. 1 Gainzuri Komentua" azpierenmua, berez, Jarduketa Integratuko Eremu bakar eta independentea da.  
Plan Orokor honen indarraldiko lehen hemezortzi hilabete igaro baino lehen sustatu eta onartuko da bertan formulatu beharreko Hirigintzako Jarduketa Programa.
- \* "11. 1 Gainzuri Komentua" azpierenmuan Arau Partikular honetako grafikoetan jasotako lehendik dauden eraikinak eta instalazioak plangintzarekin bat ez datozela erabaki da, eta proiektatutako antolamendu berriekin ordeztea proposatzen da (komentua eta familia bakarreko etxebizitza, bereziki).
- \* Oro har, urbanizazio-baldintzak Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak dira (101. artikulua eta ondorengoak).
- \* Oro har, urbanizazio-kargak egikaritu eta finantzatzeko baldintzak Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (101. artikulutik 104. artikulura) ezarritakoak dira, bai eta "3.1 Bideragarritasun ekonomikoaren azterketa" eta "3.3 Jarduketa Programa" dokumentuetan ezarritakoak ere.

"11.1 Gainzuri Komentua" azpierenmuan, azpierenmuaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek ahalbidetzen dute behin-behineko estandarrak betetzea. Hala, 969 m<sup>2</sup> antolatu dira tokiko espazio libretarako, eta 1.784 m<sup>2</sup> beste zuzkidura publiko batzuetarako, bideak kontuan izan gabe. Urbanizazioak beharrezko zuhaitz-zuzkidura izango du, eta bizitegi-partzelan behar diren garaje-plazak ere izango ditu.

"11.1 Gainzuri Komentua" azpierenmuan egin beharreko urbanizazioak barne hartzen du aurreikusitako bi igogailu publikoak ezartzea, haien kokapen zehatzaren eta Labeaga kalea goiko auzoekin hirigintza-oztoporik gabe lotzeko helburuarekin azpierenmutik kanpo osatu behar diren pasabideen kalterik gabe.

- \* Erabileren haztapen- koefizienteak Plan Orokor honetan Plan honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan ezarritakoak dira (105. artikulua), "3.1. bideragarritasun ekonomikoaren azterketa" dokumentuan deskribatuta bezala lortutakoak.

## VIII.- INGURUMEN-ARLOKO NEURRIAK.

Baldintzatzaile gainjarriei lotutako neurrien osagarri gisa (helburu akustikoak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, etab.), arloan indarrean dauden xedapenetan eta proiektuetan eta Plan honetan bertan ("1.3. Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena. Ingurumen Azterketa Estrategikoa" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuak) ezarritako ingurumen-izaerako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira.

Eremuan kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak grafikoki irudikatuta daude IV.4 planoan. Haietan esku hartzea arloan aplikatu beharreko lege-esparrura egokituko da.




**IX.- GRAFIKOAK.**

- "11.1 Gainzuri Koomentua" azpierzemua.

- 1.- Identifizioa, mugaketa eta antolamendua. Definizio geometrikoa.
- 2.- Zonakatze xehatua.
- 3.- Eraikuntza-, jabari- eta erabilera-baldintzak. Solairuak eta sekzioak.
  - 3.1.- "a.2/11.1.1" partzela

AU.11 GAINZURI-MUNDO MEJOR  
PARTZELA/PARCELA  
a.2/11.1.1 GAINZURI-CONVENTO



ESCALA 1:1.000 ESKALA

PARTZELAREN MUGA --- LÍMITE DE PARCELA  
PROIEKTATUTAKO SESTRA 360 RASANTE PROYECTADA


GRÁFICO 1. GRAFIKOA  
IDENTIFICACIÓN, DELIMITACIÓN Y ORDENACION. DEFINICIÓN GEOMÉTRICA  
IDENTIFIKAZIOA, MUGAKETA ETA ANTOLAMENDUA. DEFINIZIO GEOMETRIKOA







AU.11 GAINZURI-MUNDO MEJOR  
PARTZELA/PARCELA  
a.2/11.1.1 GAINZURI-CONVENTO



ESCALA 1:1.000 ESKALA




PARTZELAREN MUGA - - - - - LÍMITE DE PARCELA  
ERAIKUNTZA IREKIKO EGOITZA PARTZELA a.2  a.2 PARCELA RESIDENCIAL DE EDIFICACIÓN ABIERTA

GRÁFICO 2. GRAFIKOA  
ZONIFICACIÓN PORMENORIZADA  
ZONIFIKAZIO XEHATUA







**AU.11 GAINZURI-MUNDO MEJOR  
 PARTZELA/PARCELA  
 a.2/11.1.1 GAINZURI-CONVENTO**

LURSAILAREN MUGA	---	LÍMITE DE PARCELA
DERRIGORREZKO LERROKADURA	—	ALINEACIÓN OBLIGATORIA
LERROKADURA MAXIMOIA	- - -	ALINEACIÓN MÁXIMA
FATXADAN BAIMENDUTAKO HEGALAK	· · · · ·	VUELOS AUTORIZADOS EN FACHADA
GARAJEKO IBILGAILU-SARBIDEAREN NAHITAEZKO KOKAPENA	· · · · ·	LOCALIZACIÓN OBLIGATORIA DE ACCESO DE VEHÍCULOS A GARAJE
BIZITEGI-ERABILERA	▨	USO RESIDENCIAL
INDUSTRIA-ERABILERA	▨	USO INDUSTRIAL
HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA	▨	USO TERCIARIO
EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO ERABILERA	▨	USO DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO
GARAJEA ETA ERABILERA OSAGARRIAK	▨	GARAJE Y USOS AUXILIARES
TERRAZA ESTALIGABEA (ETXEBIZITZAREN EDO LOKAL ERANTSIAREN ERABILERA PRIBATIBOIA)	▨	TERRAZA DESCUBIERTA (USO PRIVATIVO DE VIVIENDA O LOCAL ANEJO)
ERABILERA PUBLIKOKO EREMUAK	▨	AREAS DE USO PÚBLICO
ERABILERA PRIBATUA ERAIKIEZINA, BAIMENDUTAKO SESTRAPEAN IZAN EZIK	▨	USO PRIVADO NO EDIFICABLE EXCEPTO BAJO RASANTE AUTORIZADO
SESTRA PERIMETRALA	390	RASANTE PERIMETRAL
ERAIKUNTZA-ALTUERA NEURTZEKO SESTRA PERIMETRALA	350	RASANTE PERIMETRAL DE MEDICIÓN DE LA ALTURA DE EDIFICACIÓN

**GRÁFICO 3. GRAFIKOA**  
 CONDICIONES DE EDIFICACIÓN, DOMINIO Y USO PLANTAS Y SECCIONES.  
 ERAIKITZE, ERABILITZE ETA JABETZA BALDINTZAK. OINPLANOAK ETA SEKZIOAK



HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK  
"12. HE INSTITUTUA".

**I.- KOKAPENA, MUGAPENA ETA DESKRIBAPENA.**

Eremuaren kokapena eta mugapena Plan honetako planoetan jasotakoak dira.

Eremua bat dator bere garaian institutua hartu zuen eta gaur egun hiri-bilbearen jarraipenean dagoen lurzoru publikoarekin, baina Labeaga kalearen sestra baino askoz gorago.

38.910 m<sup>2</sup>-ko azalera du.

**II.- ANTOLAMENDU-HELBURUAK ETA -IRIZPIDEAK.**

- \* Institutuaren egungo instalazioak finkatzea, hura egokitu, eguneratu, handitu eta hobetzeko aukeraren kalterik gabe.
- \* Eremuaren hegoaldean espazio libreen sistema orokorrean txertatu den parke bat antolatzea.

**III.- EGITURA-ANTOLAMENDUA.**

**1.- KALIFIKAZIO GLOBALA.**

**1.1.-"C/12 Komunitate Ekipamendua (SO)" zona** .....Azal. 28.420 m<sup>2</sup>

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrarekin xedatutakoak dira.

Bereziki, berariaz baimentzen da lehendik dagoena baino % 50 gehiago arterainoko eraikigarritasuna, eta hori egikaritu ahal izateko HAPO honetako Hirigintza Arau Orokoretako 65. Artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da.

**1.3.-"D.1/12 Hiriko Espazio Librea (SO)" zona.** .....Azal. 10.490 m<sup>2</sup>

Zona horren eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan izaera orokorrarekin xedatutakoak dira.

**2.- HIRIGINTZA-SAILKAPENA.**

Eremuko lurak lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu dira.

**3.- ANTOLAMENDU XEHATUA ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.**

Eremuaren antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehaztuko da.

**4.- PROGRAMAZIO- ETA EGIKARITZAPEN-ARAUBIDE OROKORRA.**

Ez da ezarri araubide hori eremuan arautzeko egiturazko aurreikuspenik.



#### IV.- ANTOLAMENDU XEHATUA.

##### 1.- **KALIFIKAZIO XEHATUA.**

###### 1.1.- Zonakatze xehatua.

Plan Orokor honetako III.1 planoan jasotakoa.

